



ARGIA

2018-2022 urteetako
banaketaren irudikapena.
Diru gehien jaso duten
bederatzi hedabideak eta ARGIA.

Datuak: Eusko Jaurlaritza
Iturria: gobiernovasco.marketing

Noticias de Gipuzkoa
1.367.418 €

Gara-Naiz
2.202.129 €

Berria
1.331.978 €

Noticias de Álava
1.093.351 €

Deia
2.483.871 €

Onda Cero
1.072.193 €

ARGIA
105.430 €

El Correo
6.465.873 €

El Diario Vasco
4.397.376 €

Cadena Ser
4.132.556 €

Jaurlaritzaren publizitate instituzionalaren banaketaz

Gardentasun ariketa

24-29. orrialdeak



**"Beti izan dut
Iruñean euskara
aldarrikatzeko
helburua"**

14 | JAGOBA ARRASATE



**Ikusmolde kritiko
eta eraikitzaileen
elkargunea Gasteizen**

44 | EVA FOREST LIBURUTOPIA



Sagarrondotik
Kalekumeak
sagardogile

35. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

LAZKAO 2023ko abenduak 15, 16 eta 17

Aurkezpenak eta ekintzak

Abenduak 11, astelehena

Liburu-aurkezpenak

Aitor Arana 'Lidiaren betaurrekoak'
11:00etan - Udal liburutegian

Patxi Zubizarreta 'Sakonean itsasoa ikusten da'
eta 'Loak ezkututzen duena'
19:15ean - GERRIKO liburu-dendan

Abenduak 12, asteartea

Hitz&Musik

Niko Etxart Elkarriketa eta saio akustiko laburra
18:30ean - GERRIKO txokoan

Abenduak 13, asteazkena

Liburu-aurkezpenak

Xabier Mendiguren 'Oso latza izan da' eta
'Nondik sortu da haizea?'
19:15ean - GERRIKO liburu-dendan

Mintza Lagunen afaria

Lazkao, Beasain, Ordizia
20:00etan, MAIZPIDE Euskaltegian

Abenduak 14, osteguna

Liburu-aurkezpena

Laida Ruiz 'Elur gorrituaren egunak'
11:00etan - GERRIKO txokoan

Azoka egunetan, plazako pilotalekuan

Abenduak 15, ostirala (16:30-20:00)

AZOKAren irekiera

16:30ean

Errifaren zozketa

19:00etan

Liburu-aurkezpena

Irati Goikoetxea 'Nor'

19:30ean

Abenduak 16, larunbata (10:00-14:00)

AZOKAren irekiera

10:00etan

Kale animazioa

Buruhandiak, erraldoiak eta dultzaina jotzaileak
12:00etan

Liburu-aurkezpenak

Amaia Telleria eta Laida Ruiz 'Elur gorrituaren egunak' eta
'Zuhara, buruhezurren itsasoan'
13:00etan

Liburu sinatzea

Xabier Mendiguren

13:00etan

Abenduak 17, igandea (11:00-14:00)

AZOKAren irekiera

11:00etan

Liburu-aurkezpena

Eneko Aizpurua 'Gaueko azken expressoa'

12:00etan

Musika emanaldia

Lazkaoko Musika Banda Gabonetako kontzertua

12:30ean

Aurkezpenetan aurkeztutako liburuak zotz egingo ditugu.

-%15
Udalari
esker

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO IRUDIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Iritziak

- 19 | IRATI LABAIEN
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | ANUNTXI ARANA
- 21 | CASTILLO SUÁREZ
- 22 | MATI ITURRALDE

Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
KARMELE SALSAMENDI
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


DOS PORDOS / ARGIA CC-BY-SA

44 | **EVA FOREST LIBURUTOPIA**

Gasteizen zabaldu berri duten espazioan arnasten dena kontatu digu Gorka Peñagarikanok. Liburu bereziak eta elkargunea izan nahi duen kafetegia, utopiek forma hartu dezaten.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Inditexek hegazkinez dakartza moda azkarra eta... krisi ekologikoa

Urko Apaolaza

14 | PERTSONAIA | JAGOBA ARRASATE

“Osasunara etortzean, nire azpi-helburuetako bat zen euskara bultzatzea Nafarroan”

Reyes Ilintxeta

24 | JAURLARITZAREN PUBLIZITATE BANAKETA

Botere mediatikoak eskuindarra eta erdalduna izaten jarrai dezan

Axier Lopez

30 | KIROLA | NAROA ITURAIN, PILOTA EPAILEA

“Emakume epaile gutxi dago, gutxietsiak izateko beldurra dugulako”

Eñaut Agirrebengoa

34 | NAZIOARTEA

Terrorismoa ala erresistentzia? Nola hitz egin behar da Palestinaz?

Jon Hidalgo

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Amaitz Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Manex Moreno, Mattin Azpiroz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuontzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Ez ginen ekibokatu

Oroimena galdu ez dugulako ondo dakigu Gernika eta gernikarrak zergatik kiskali zituzten orduko nazi "nazionalak". Memoria dugulako ez dugu ahantzi Madrilen 1998an Aitor Zabaleta zergatik hil zuten faxistek. Arrazoa bakarra eta simplea delako: izate hutsa, euskal herritarra izatea. Lehengo eta gaurko faxisten jo-puntuan egotea, historiaren alde egokian egotearen prezioa da. Horregatik, palestinar herriaren erresistentzia geure iragana eta etorkizunaren parte da.

AXIER LOPEZ GERNIKA-PALESTINA HERRI EKIMENA



PPk mailaz igo du pisu turistikoak legez kanpo ustiatu dituen Antépara

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Gustavo Antépara Gasteizko Alde Zaharrean pisu turistikoak baimenik gabe ustiatu dituela eta bertan obra “klandestinoak” egin dituela argitaratu zuen ARGIAk 2023ko apirilean. Maiatzeko hauteskundearen osteko berregituraketan, Arabako eta Gasteizko PPko kide esanguratsua hirigintzako 21 Zabalgunea sozietate publikoko administrazio kontseilutik kendu du alderdiak bi legegintzaldiren ostean. Ardura berria eman diote, ordea: udal taldearen aholkulari izendatu du, hilabeteko 3.449,14 euroko soldatarekin.

Antépara PPko ordezkari izan da aurreko legegintzaldian Gasteizko dituen hiru sozietate publikoetan: 21 Zabalgunea, AMVISA eta TUVISA). Hauteskundearen ostean egindako aldaketekin, bi zentzutan igo du mailaz Antépara bere alderdiak: politikoki eta ekonomikoki. Politikoki, ardura handiagoa eman dio. Sozietate publikoetako administrazio kontseiluek hilabetean behin egin dituzte bilkurak iragan legegintzaldian, hilero hiru bilera beraz, eta marko horretan alderdietako ordezkariak ez dute pisu politikoa nabarmenik. Udal taldearen aholkulari postua alderdiek konfiantzazko pertsoneri ematen diete, eta alderdiaren udal politikan eragiteko boterea ematen du.

Ekonomikoki, administrazio kontseiluen dietak bilerako 119,65 euro dira. Baldin eta Antéparak horiek jaso bazituen, 358,95 lirateke hilero. Orain, aholkulari gisa, jardunaldi osoan dago soldatapean PPko kidea. Diru publikotik 3.449,14 euroko soldata gordina jasotzen du hilabetero. Datu horiek guztiak udalaren webgunean bertan daude publiko.

PP-KO KIDE ESANGURATSUAREN LEGEZ KANPOKO JARDUERAK

Antépara Gasteizko eta Arabako PPko kide esanguratsua da. Zinegotzi izan zen Gasteizko Udalean 2016-2019 tartean, Javier Maroto ordezkatu ondoren. Maiatzeko udal eta foru hauteskundeean Arabako zein Gasteizko zerrendetan sartu zuen alderdiak, hamalaugarren eta zazpigarren postuan, hurrenez hurren.

PPko Gasteizko Udaleko taldearen aholkulari gisa, diru publikotik 3.449,14 euroko soldata gordina jasotzen du hilabetero Antéparak

ARGIAk apirilean argitaratu zuen moduan, batetik, udalak espedientea ireki zion berak sortu zuen Luxury Rental Apartments enpresari, pisuen eraberritze integralerako obra “klandestinoak” egitea leporatuta Pintore eta Hedegile kaleetan. Bestetik, Luxury hainbat etxebizitza alokatzen aritu da gutxienez 2021etik, horretarako baimenik ez bazuen ere.

Udalak irekitako espedienteei dagokionez, Gasteizko Udalaren Lurraldearen eta Klimaren Aldeko Ekintzaren Sailak 500 euroko isun bana ezarri zion Luxuryri Pintore eta Hedegile kaleetako bi etxebizitzetan eginiko obregatik (legeak 500 eta 5.000 euro arteko isuna aurreikusten du). Luxuryk helegitea aurkeztu zuen, eta udalak isunak berretsi ditu uztailearen 12an eta 13an, bide administratiboari amaiera emanez.

ANTÉPARA ETA LUXURYREN ARTEKO HARREMANA GAUR EGUN

PPk eta Antéparak ziurtatu zuten, ARGIAren informazioari erantzunez, Antéparak ez zuela inongo ardurarik enpresan 2019tik, hau da, Luxuryk legez kanpoko jarduerak burutu aurretik. PPko komunikazio arduradunak alderdiaren egoitzan erakutsi zizkion ARGIAri hori frogatzen omen zuten dokumentuak, Antéparak aurkeztutakoak. ARGIAk frogatu zuen, ordea, 2022ko uztailearen 1era arte Luxuryren administratzaile bakarra izan zela Antépara, hau da, bere administraziopean burutu zirela salatutako jarduerak.

Hainbat bizilagunek ARGIAri ziurtatu diote Pintore zein Hedegile kaleko pisuetan turistak ikusi dituztela uztaila eta abuztuan zehar sartu-irtenean, eta kale batean zein bestean Antépara bera ikusi dutela hainbat aldiz, 2022ko uztailetik enpresaren administratzaile bakarra Pilar Perosanz Arabaturreko presidentea bada ere, Antepararekin lotura estuak dituena. Luxuryk, besteak beste, atari oso bat du jabetzan Alde Zaharreko Pintore kalean, lau etxebizitza dituena. Irailean, horietako bi pisu erregistratu zituen Luxuryk Jaurilaritzan erabileratu turistikoko etxebizitza moduan, baina atariko lau etxebizitzak eskaintzen ditu alokairuan Booking gisako webguneetan. ●



Gasteizko PPren argazkia. Antépara erdian goian, Laura Garrido legebiltzarkidearen gainean.

MATERIALISMO HISTERIKOA

Oihartzunak



UXUE APAOLAZA LARREA

L iteraturaz gaixo gaudenok edozein aukera aprobetxatzen dugu gure bizioa kutsatzeko, eta horretan aritzen naiz ipuin irakurle klub maitagarri batean. Ipuin eredu klasikoenen egitura aztertzeko azkena irakurri genuen ipuin batean, amaierako kolpea jasotzeko beharrezkoa zen hitz batzuen oihartzuna, hitz batzuek beren horretan daramaten kargaren nolabaiteko memoria izatea. Yiddisha, lantegia, Auschwitz. Zalantza nuen gazteenei guri egiten digun oihartzuna egingo ote zien Auschwitz hitzak. Nolabaitekoa bai, egin zien.

Zergatik eusten dio Auschwitz hitzak oihartzun izugarri horri? "Agian, oraindik bizirik daudelako handik pasatakoak?" proposatu zuen batek. Ez dut uste. Gerra galdu bat, diskurtso oso ondo eraiki bat... ez da deus jakin behar Auschwitzi buruz, hitza beldurgarria izateko. Nor ez dugu ezagutu beharrik beldurgarria izateko? Orain, gerra handirik ez dugula, baina etengabe gerraren batek beldurtzen gaituela, Hirugarrena bilakatuko delakoan (bonba etxera botako digutelakoan), oihartzuntxo asko sortzen zaizkigu, agian, ez hain iraunkorak. Bin Laden, kasu. Kadafi, kasu. Saddam Husein, kasu.

Eta oraintxe bertan, zer izenek beldurtzen zaitu, Putin izenak ala Zelenskik? Putinen aurpegiak izoztu egiten gaitu, berez, berari buruz ezer jakin gabe ere: nahikoa da KGB (zer da KGB?), espia... kasik nahikoa da errusiarra izatea. Obama izenak nor beldurtzen du? Zenbat hil zuen Obamak? Israel entzutea Auschwitz entzutek zein distantziatara dago?

Haur batek zenbat jende hiltzeko, beldurtzeko, azpiratzeko denbora eduki du? Haurrek, beraz, ez gaituzte beldurtzen. Batzuek pupida handiagoa sortzen digute beste batzuek baino. Palestina-koak adina haur ukrainar ez lirakeke jasangarriak gure pantailetan.

Zaudete. MENA. Zenbat beldurtzen dira MENA entzunda? Zer oihartzun du MENA hitzak? Zer esan nahi du berez? Bakarrik. Urrun. Eta ume. Nola lortzen da ume esan nahi duen hitz batek Obamak bezainbeste hil duen tipo batek baino beldur handiagoa sortzea? Kontuz, ea egun batean gu esnatzen garen labezomorro beldurgarri bilakatuta. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Faxismoa

Aitor Zabaleta Realta futbol taldeko zalea hil zuen ultraeskuindar batek duela 25 urte eta heriotzaren urteurrenean, ehunka lagun elkartu ziren abenduaren 8an Donostian, Zabaletaren omenez. Beste biktima batzuk ere izan zituzten gogoan, Iñigo Cabacas kasu.

Osasuna

Lizarrako herritarrek protesta egin dute: García Orcoyen Ospitaleko Ginekologia eta Obstetriziako zerbitzuetan dagoen langile faltagatik, erditze zerbitzua berrantolatzen ari dira eta bitartean, herritarrek Iruñea eta Tuterara joan beharko dute. 25 erditze aurreikusten dira Lizarra inguruan abendurako.

Ingurumena

44 metroko altuera duen 4G antena baten ezarpenak hautsak harrotu ditu Akamarren, Nafarroa Beherean. Herriko etxearen arabera, "behar-beharrezkoa da". Herritar ugari inguruko paisaian lukeen eragin ezkorra azpimarratu dute, eta jada milako bat sinadura bildu dituzte haren ezarpenaren kontra.

Riderren “lan-babes falta” eta “muturreko arriskuak”, agerian

 MATTIN AZPIROZ PAGOLA



WIKIMEDIA COMMONS

Glovo, Just Eat eta Uber Eatseko janari banatzaileen %70-75ak paperik gabe lan egiten du EAEn, *El Salto* hedabideak *Journalismfund Europe*-rekin elkarlanean egindako ikerketa-erreportajearen arabera. Horrek asegurririk gabe uzten ditu langileak lanean lesioren bat izanez gero.

“Kezkagarria” eta “larria” da Bilboko etxez etxeko janari-banatzaileen egoera, ikerketak jasotzen duenez. Ikerlanak agerian utzi ditu riderren segurtasun arriskuak eta lan-istripuen aurrean duten lege-babesik eza. Besteak beste, Glovo, Just Eat edo Uber Eats plataformekin egiten dute lan, bezeroek plataforma horietara egiten dituzten eskaerak entregatzen.

Ikerketarako Bilbon aritzen diren 30 rider ingururekin hitz egin dute. Adierazi dutenez, migratzaileak dira gehien-go sektorean: “Horietako askok legezko agiririk gabe lan egiten dute, eta horrek lan-babesik eta asegurririk gabe uzten ditu lanean lesioak izanez gero”. Hala ere, riderrek adierazi dute “gutxi gorabehera” EAeko banatzaileen %70-75ak paperik gabe lan egiten duela.

Azpimarratu dute langileek askotan hamasei ordura arteko lanaldiak egiten dituztela, eta lan-istripuak izanez gero dokumenturik ez dutenek medikura joateko beldurra dutela: “Deportatuak izateko beldur dira”. Adituek eta sindikalistek nabarmendu dute egoera horrek “osasun eta segurtasun arazo kritiko bat” islatzen duela sektorean.

Plataformen artean ere ezberdintasunak aurkitu dituzte. Just Eat-ek, esaterako, estaldura eta gizarte-segurantz handiagoa eskaintzen du, riderrek beren soldataren %100 jasotzen baitute istripu baten ondorioz lan egin ezin dutenean.

Glovo-k eta Uber Eats-ek, aldiz, autonomotzat jotzen dituzte eta gutxieneko babesa ematen diete istripuei. Honek eragin zuzena izan du prekarietatearen gorakadan. Bertako langileek 40 euroko kalte-ordain finkoa jasotzen dute egunean, 30 egunez.

PROPOSAMENAK

Politikaren esparrutik, arazo horri aurre egiteko ekintzak proposatu dira. Adibidez, Bilboko Udaleko EH Bilduko boze-

ramaile María del Río Peredak hainbat neurri iradoki ditu, besteak beste, kontzientziazio-kanpainak, bide-segurtasuna hobetzeko hirigintza-aldaketak eta udal mailako plataforma alternatiboen kooperatibak garatzen laguntzea. Gainera, lan-ikuskaritza indartzeko, Rider Legea erabat aplikatzeko eta paperik gabeko riderren egoera erregularizatzeko neurriak hartzeko beharra nabarmetzen da.

“Beharrezkoa da lan-ikuskaritza indartzea, Rider Legea erabat aplikatzea eta paperik gabeko riderren egoera erregularizatzeko neurriak hartzea”, adierazi du Del Río Peredak.

ISILTASUN INSTITUZIONALA

Planteatutako kezkak eta hobekuntza-proposamenak jaso dituzten arren, enpresek eta gobernu-erakundeek, Bilboko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak ez dute deus esan egoera honen inguruan. Isiltasun horrek zalantzak sortzen ditu banatzaileen lan-baldintzak berehala hobetzeko aukeraren inguruan, *El Salto*-ko erreportajearen nabarmendu nahi izan dutenez. ●

3 aldiz gehiago ekoiztea energia nuklearra 2050erako. Hori adostu dute COP28 gailurrean 22 herrialdek. Energia Nuklearra Hirukoizteko Adierazpenak "energia nuklearraren funtsezko papera" aldarrikatzen du kutsadurari eta tenperatura igoerari aurre egiteko. Sinatzaileen artean daude Ameriketako Estatu Batuak, Kanada, Arabiar Emirerri Batuak, Maroko, Suedia edota Frantzia. Bat egitera deitu dituzte gainerako herrialdeak.

53 urte kartzelan igaro ostean, hil egin da Ed Poindexter preso politikoa, AEBetan. 79 urte zituen eta atentatu baten egiletza leporatuta espetxeratu zuten, beste gizon batekin batera. Baina bai beraiek bai jarraitzaile ugari urtetan salatu dute ez zirela krimenaren arduradun izan eta euren aktibismo politikoagatik ezarri zieten kondena. Black Panther gisako talde baten kide ziren eta beltzen eskubideen alde borrokatu zuten.

“Eskola jantokien eredu industrial tradizionalak goia jo du eta beherak dator. Elikadura garraiatua oso kalitate eskasekoa izateaz gain, ez da batere sostengarria ezta osasungarria ere”

SALBURUAK BERE SUKALDEA

Arantzabela, Errekabarri eta Salburua ikastetxeek sukalde propioa nahi dute, auzoko eskoletako jangelak hornitzeko, baina hilabeteak joan hilabeteak etorri, administrazioaren erantzunik gabe jarraitzen dutela salatu dute.

2023-12-01



“Talde lana, besteekiko errespetua, elkartasuna... zortzimilakoetako gaur egungo jarduerari erreparatuta, galtzen ari dela iruditzen zait zenbaitetan”

EDURNE PASABAN

WOP Mendi Film saria jaso du mendizaleak, aurtengo zinemaldiaren hasiera ekitaldian.

BERRIA.EUS (2023-12-08)



Sukaldeak



ULA IRURETAGOIENA

Sukalderik gabeko etxeak proposatzea probokazioa eta iraultza bat izan daiteke. Horrela dio Anna Puigjaner arkitekto katalanak bere ikerketa lanean. Sukaldea etxe garaikideen hausnarketa leku garrantzitsua da; genero berrikuspenetik begiratuta, sukaldea etxearen kokapenak eguneroko janaria egiten duenaren adierazpena espazioratzen du, izan emaztea edo neskaen leku. Sukaldea, egongela eta jantokia elkarrekin bat egitea, baina, ez da sukaldearen baloratze garaikidearen soluzioa, baizik eta etxeen azalera txikiagotzearen ondorio, produktu errentagarriagoa izate aldera. Hori bai, sukalde irekiak etxearen erlazio-gunearen berdefinizio bat dakar, janaria prestatzea ekintza sozialagoa eta ikusgarriagoa bilakatuz.

Sukalderik gabeko etxeak bagenitu, akaso sukalde komunitarioen bidez elikatuko ginatke, zerbitzu publiko baten gisara etxeke zereginetatik aterata. Horrela antolatu zen New York hiria 1929ko krisian etxebizitza beharrari aurre egiteko. Planetako hainbat lurraldetan joera omen dira egun; Quebec, Mexiko, Lima, Singapur. Gobernuak antolatuta edo herrigintzatik sortuak, sukalde komunitarioek auzo baten elikatzea bere gain har dezakete, tokiko produktuekin prezio baxuko bazkalorduek emanaz, etxeke sukaldea auzoko sukaldeak ordezkatuz.

Azaroak 30eko grebaren hausnarketari ekarpen txiki bat. Japonian kodomo sukalde komunitarioen *boom* bat dago, elikatzea ez ezik zaintza komunitarioko funtzioa betetzen dutenak. Sukalde komunitarioen ekimena erretiraturakotako emakume eta sukaldaritzan aritzen zen talde baten partetik suertatu zen. Elkarteak sukalde eta mahai handi bat eraiki zituen auzoan eta auzoko haur askok arratsaldea bakarrik eta gaizki elikatuta igarotzen zutelako oharturik, mahai inguruan arratsaldean elkartzerako gonbidatu zituzten, jakintza zabaltzen, elikatzen eta elkarri konpainia ematen. Zaintza komunitarioko ekimen honek auzoko bizitza iraultzen du, etxearen sukalde funtzioak galdegiten du eta bide bat irekitzen dio zaintzaren erpin askotariko gatazkari. ●



EUSKAL IRRATIAK

Kolegioan ere, ele bitan

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Ipar Euskal Herrian, Lehen Mailan, 5.700 ikaslek ikasten dute euskaraz eta frantsesez. Kolegioan, berriz, 1.600 ikaslek egiten dute hau hori. Pirinio Atlantikoetako Departamenduak, Frantziako Hezkuntza Ministerioak eta Euskararen Erakunde Publikoak *Kolegioan euskaraz, etorkizuneko erronka* komunikazio kanpaina abiatu dute.

Ikasleak eta gurasoak konbentzitu nahi dituzte, Lehen Maila egin ondoren, kolegiara jotakoan ere, ele biko hizkuntza ereduak aukeratu dezaten. Maila batetik besterako bidean, ikasle askok ez du aukeratzen ele biko ereduaren segitzea. Aukerak, berriz, badira. Ipar Euskal Herriko hemezortzi kolegioetatik hamabostek proposatzen dute aukera elebiduna.

Marie Delpech hezkuntza ikuskarria da eta Euskal Irratiei adierazi die ikasleek eta gurasoek kezka eta beldurrik izaten dituztela ikasketetan aurrera egin ahal bi hizkuntzetako irakaskuntzan jarraitzeko: "Egia da, irakaskuntzak euskaraz proposatuak direlarik eta familiak euskaldunak ez direlarik, beldur hori sortzen da. Kanpaina egin da, justuki, kezkei erantzuteko: nola lagundu haurra kolegiara pasatzen delarik, eman dezagun etxeke lanak egiteko edo segurtatu haurrak eskolako ibilbide baikorra izaneko duela nahiz eta euskaraz segitu".

Kanpaina hiru bideo erabiliko dituzte, eta paperean eta sarean za-

balduko den liburuxka bat izango du. Euskarriotan euskararen aldeko hautua egin dezaten edo egiten jarrai dezaten eskatuko zaie ikasle eta gurasoei. Mezuaz gain, informazio ugari izango dute, ele biko irakaskuntzaren ingurukoa. Dena den, Delpechek ele biko ereduaren emendatzeko oztopo bat aipatu die Euskal Irratiei. Gaur egun irakasle diren asko ez dira euskal hiztunak, eta beraz, ezin dute euskarazko irakaskuntzarik eskaini. Egoera honela deskribatu du Marie Delpech ikuskariak: "Ez baita momentuko irakaslerik euskaraz formatu nahi duenik, edo ez da irakaslerik erretiratuko denik, eta beraz, ikastetxe horietan ez daitezke perfilatu lanpostuok. Baina Hezkunde Nazionaletik bada borondate azkar bat horretara joateko".

HAURTZAINDEGIETAN ELE BIKO ESKAINTZA

Kazeta.eus hedabideak jaso du abenduaren 9ko hautetsien kontseiluaren bilkura. Bil Gaitien talde politikoak zuzenketa aurkeztu du eta aldeko 164 bozkarekin aurrera atera da. 24 abstentzio eta kontrako lau boto izan dira. Egoitz Urrutikoetxea Bil Gaitien taldeko ordezkariak "haurtzaindegien labelizatzea orokortzea" proposatu zuen bilkuran, "haurren euskarazko eta gaskoierazko harrera elebidun eta murgiltzaile bat bultzatzeko". ●

Balio, balore, balora

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Ekosistema kapitalista elikatzen duen plazetako bat da Durangoko Azoka, hori pentsatu eta publikoki adierazteak askori min egiten badie ere. Salgai nagusia kultura da azokan. Kultura, letra xehez idatzita. Letra larriak erdigunetik kendu genituen aspaldi: hizkuntza, begietara salto egiten duten gaztelarazko argitalpenak ohi baino integratuago zeudela iruditu zait; eta nortasuna, zer nortasun? Euskal identitatea deritzon hori ez genuke, jakina, *sagardoa-bertsoa-txapela* hiruko horretara mugatu behar, baina horretatik baino gehiago ikusi dugu Rosaliak saltzeko duen estilotik. Eta Rosaliaren aurka ez dut ezer. Baina ez dezagun hitz egin ez dakit zer nortasun idealizaturik buruz.

Kultura erdigunean jarri dela irakurri ahal izan dugu han edo hemen. Fondo-fondoan ekonomiak agintzen duen kultura, eta kulturaz eta arteaz daukagun egiturazko ikusmolde eta politikak lausoturik. Lehia batean bizi gara hemen ere.

Azokako lehen hiru egunetan jende dezente ibili da, eta hurrengo bietan gutxiago; hala ere, tonika bera edo oso antzerakoa izan dute bost egunek. Modeloen paseak bailiran, kronometroa-

**Kultura saldu dugu,
baina ea zenbat.
Zifretan neurtzen da.
Egun hauetan irakurriko
dugu hainbeste
bisitari eta hainbesteko
gastua egin dela**

rekin neurtutako hogeitun minutuko esposizio-saio biziak egin dituzte egileek, jendetsuagoak ala ez, funtsean helburu berarekin: publikoa ahalik eta gehien kitzikatu eta mini-aurkezpenaren ondoren erostera konbentzitzea. Aurkezpenaren egitura azalekoa baino ez da. Hogeitun minutuk ezer gutxirako ematen dute, hasteko ere ez. Liburuaz lau printza esaterako hortxe dago azokako langilea egileari ordularia seinalatzen. Eta ez da bere errua, gauza askotan bezala, *egiturazko sistema* delakoa baitago atzean. Gero zer erantzukizun hartzen dugun horrekiko, beste balore eta funtzio batzuetako molderik bilatu nahiko genukeen... Beste kontu bat da.

Koldo Izagirreri gertatu zitzaion jendeari galderak egiteko unea luzatu baino lehen aurkezpena amaitutzat eman behar izatea. Geratu zitzaion aurpegiak dena zuen esateko. Irribarre erdi bat, “zer egingo diogu” esan eta kanpora, hustu behar da aretoa hurrengo data-rrelako. Bernardo Atxagak beste eredu bat erabili zuen bere aurkezpenaren: liburuaz bi kontu azkar esan eta bizitzaren joanaz, salbuespenek gidatzen duten gizarteaz edota gupidaz mintzatu zen oro har, berak bakarrik egin dezake-lako horrelakorik, ez duelako liburua esplizituki saltzeko beharra.

Biharamunak balorazioetarako izan ohi dira. Kultura saldu dugu, baina ea zenbat. Zifretan neurtzen da. Egun hauetan irakurriko dugu hainbeste bisitari egon direla eta hainbesteko gastua egin dela. Ea nori galdetzen diogun. Ea, standez stand apunteak hartzen ibili gare-nok, bazterrekoak eta salduenak izan ez diren eduki horiei merito eta beharrezkotasun puntu nimiñorik aitortzen ote diegun. “Salmentak onak izan dira” idatzi edo irakurtzeak ez baditu gure ipurdiak deseroso jartzen, agian larreko asimilazioetan erori gara dagoeneko.

Salerosketa egitura basatiaren bazterretan alternatibak sortzen dira hala ere, eta poz eta itxaropen une batzuk bizitu ditugu maratoi egunotan. Sinergiak sortu dira, jarrera kritikoak esplizituki babestu, Durangoko Museora joan eta bermutaren bueltan solastatu, bazterreko kolektibo eta indarkeriak gehiago ikusarazi eta kontu gehiago. Engelsen *Etxebizitzaren auzia* espero baino gehiagok begiratu eta erosi dutela entzun dut, eta poz apur bat eman dit horrek. 150 urte ditu liburuak, baina ez du gaurkotatzen galdu, zerbaitegatik ote.

Balorazioen ostean, iritsiko da negua, udaberria... Eta segituko dugu Durangora joaten, segituko dugu hamarnaka euro ordubetea xahutzen, etxeko apalak dotoretzen eta geure produktuak iaz baino gehiago saltzen saiatzen. Segituko dugu kritikatzeko ditugun dinamikak elikatzen. ●



Landakogunea lasaixeago egon zen larunbat arratsaldean.

INDITEXEK HEGAZKINEZ DAKARTZA MODA AZKARRA ETA... KRISI EKOLOGIKOA

Erabili eta bota. Abiadura handiko modak saltokiak eta etxeetako postontziak bete ditu aspaldion, *fast fashion* ere esaten zaio. Baina azkarretik baino inozotik gehiago du: lan prekarioarekin hondakin mordoa sortzeaz gain, arropa garraiatzen fuel-olio kopuru izugarriak erretzen ditugu, are gehiago hegazkinean eginez gero. Inditex da horretan txapelduna eta Zaragozako aireportua bihurtu du Europako operazio-gune handiena.

 URKO APAOLAZA AVILA

Delhitik datorren Atlas Air linearen Jumbo bat lurreratzeko zorian da Zaragozako aireportuan. Bere barruan 100 tona arropa daramatza, denak dira Inditexen markentzako eginak: Zara, Massimo Dutti, Pull&Bear, Bershka... Ondoren, talde multinazional horrek munduan dituen 5.815 saltokietara eramango dituzte arropak bueltan. Jumbo bat etorri da. *Bat, eta beste bat, eta beste bat...* Makina bat hegazkin egunero, fuel-olioa goitik botatzen, behin eta berriz, Jurgi Ekiza Willis Drummondoko gitarristak kantatzen duen moduan.

Moda azkarra edo *fast fashion* esaten zaio pasarelatik kontsumitzailearengana berehala iristen den arropari, kostu oso baxuarekin ekoitzia, eta apenas denboraldi bat erabili ondoren normalean zaborrontzian amaitzen duena. Erabilutako tinturek eta materialek (poliester, mikroplastikoak...) izugarri kutsatzen dute planeta; berotegi-efektua eragiten duten gasen %8 moda industriak isurtzen du; eta urtero munduan 93.000 milioi metro kubo ur behar da jantziak egiteko, NBEko Merkataritza eta Garapen Konferentziaren arabera.

1980ko hamarkadan hasi ziren saltoki-kateak moda azkarraren ereduarekin, eta azken hamabost urteotan bikoiztu egin dute ekoizpena. Gainera, beren estrategia asko findu dute, saltokietako stocka eta denborak doitu: jendeak pentsatu behar du aurrean dituen *short-*

ak hurrengo astean ez direla egongo, erosi ditzan. Konpainia handienak gai dira modaren zikloa aste gutxi batzuetara murrizteko, entrega-epe oso laburrekin. Eta horretarako, hegazkin bidezko garraioa funtsezko bihurtu da, nahiz eta hamalau bider emisio gehiago eragin.

Public Eye ingurumen elkarte suitzarrak azaroan kaleratu duen ikerketa bategen erakutsi du arroparen aire-garraioak Europar Batasunean duen inpaktua norainokoa den: 2022an 387.000 tona janzki inportatu ziren eta beste 347.000 esportatu hegazkinez, urtero 7.500 hegaldi inguru, egunero 20 kargarako abioi oso-osorik moda artikuluekin. Moda azkarreko marka asko ikertu dituzte Public Eyerentzat David Hachfeld eta Romeo Regenass kazetariak, iturri independenteak erabilia, baina denen artean bat nabarmentzen da, alde handiz gainera: Inditex.

Inditexen marka ezagunenak, Zarak, 621.244 tona arropa ekoiztu zuen 2022an eta beste urte batez errekorra txiki utzi zuen. Egun munduko bigarren arropa-konpainia handiena da Nike multinazionalaren atzetik eta 4.000 milioi eurotik gora irabaziko du aurten ere. Horren zati handi bat Amancio Ortega eta bere alaba Marta Ortegaren poltsiko eskuzabaletara joango da noski.

Ortegarrek beren diru-zorroa arropa industrian egindako fortunarekin bete dute nagusiki, baina ez diete beste

negozio batzuei muzin egin. Erraterako, energia berriztagarrietan inbertitu dituzte ehunka milioi euro, Repsolek dituen eoliko proiektuetan. Josu Jon Imazek aliatu gisa ikusten du enpresari galiziarra, petrolio-konpainiak "zero emisio" izatea lortu dezan. Amancio Ortegak bere aldetik esan du inbertsio horien asmoa dela "ingurumenarekiko konpromisoa berrestea". Hobe luke Arteixora txabusinak egitera itzuli eta arropa saltzeko eredu jasangarriago bat sustatuko balu, desazkunderako zalan-tzagarriak diren makro-azpiegituretan dirua jarri beharrean.

ZARAGOZA, AIRE BIDEZKO MODAREN HIRIBURU

A Coruñan egindako azken batzar orokorrean, Zarak hitz eman zuen zero emisio lortuko dituela –eta ez 2050ean Repsolek bezala, baizik eta 2040an–. Horretarako karbonoa neutralizatzeko berriztagarrien proiektuetan sartzeaz gain, *Join Life* ("Batu bizitzara") bezalako etiketa "ekologikoak" kudeatu izan ditu, eta itsas garraio "garbia" sustatzeko ekimenetan parte hartu du: "Inditexi gustatzen zaio garraioaren eraginkortasunean izan dituen aurrerakadez informatzea, baina nahiago du isilik egon mundu osoan zehar bere arropa hegan bidaltzean klimari eragindako kalteak aipatzen direnean", diote Hachfeldek eta Regenassek euren ikerketan.



ESTRATEGIA Astean bitan hornitzen ditu Inditexek bere marketako saltokiak, jendeak etengabe sentitu dezan arropa berria behar duela. Denbora-epe horietan sartzeko, produktuak hegazkin bidez garraiatzen ditu multinazionalak. / ZARA TALDEA

Afrikako iparraldean, Turkian, Bangladeshen... Ehungintzako erraldoiaren produktuak non ekoizten diren berdin du, denak toki beretik igarotzen baitira: Zaragozako aireportutik. Tuteratik apenas ordubetera, aireportu hartan duen PlaZa biltegi izugarrian sailkatzen du arropa Inditexek, eta ondoren munduko bazter guztietara bidaltzen du hegazkinaz, baita Europa barrura ere –salbu eta errepidez 36 orduren buruan iristeko aukera dagoenean, orduan trailerrez bidaltzen ditu merkantziak–.


Astean halako 32 hegaldi kudeatzen dira Zaragozan, 1.600 hegaldi urtean, bakoitza 100 tona arroparekin. Estatubatuar batek Stradivariusen erosi dituen azken joerako *jeans*-ek seguruenik bi aldiz bidaiatu dute Jumbo baten sotoan milaka kilometrotan.

Quantis aholkularitzaren datuetan oinarrituta, Public Eyeko ikerketaren egileek diote ehun industriako CO2 isurien %3 garrarioari dagokiola –gainerakoa materialen ekoizpenean sortzen da–, baina garrarioa hegazkinaz baldin bada, portzentajea %28ra igotzen da.

Zentzugabekeria are handiagoa da kontuan edukita garraio-kostuak askoz handiagoak direla airez. Hala, 10 edo 15 euro balio duen tixerta batek uzten duen marjina hain da eskasa, hura egiten duen bangladeshtar emakumeari 34 zentimo baino ez dizkiola ordainduko bere nagusiak. Baina Amancio gure ekintzailea ezin da halako txorakeriekin despistatu, aurrena iristea da garrantzitsuena, eta Inditexek arto dio bere saltokiak astean bitan hornitzen dituela arropa berriarekin.

Modako sektorean dagoen lehia ez baita samurra. Banatzaileen bidez zuzenean norbanakoen etxetara arropa-paketeak bidaltzen dituzten online enpresen artean Shein ari da gailentzen, Public Eyen irakur dezakegunez. Txinako Guangzhou hiritik egunero aineratzen dira hegazkin ugari Los Angeles, Londres edo Amsterdamera, China Southern Airlines operatzailearen bidez. Suitzako RTS telebista publikoak GPS bidez jarraipena egin die erosleek itzultzen dituzten Sheineko arropoi: Txinara itsasontziz bueltatzen dituzte, baina gero berriz hegazkinaz bidaltzen dizkiete beste erosle batzuei, *gero eta azkarrago, eta azkarrago... bide luuzea*.

Hortaz, ondo pentsatu beharko dugu Gabonetan zer erosi, merkea dena uste baino garestiago aterako baitzaigu. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Jagoba Arrasate

MISTER ETA BERTSOLARI



OSASUNARA ETORTZEAN, NIRE AZPI-HELBURUETAKO BAT ZEN EUSKARA BULTZATZEA NAFARROAN



Duela sei urte iritsi zen Osasuna futbol taldera entrenatzaile gisa. Denbora tarte honetan lortu du taldea lehen mailara eramatea eta ia Kopako finalera eta Europako lehiaketa batera, aspaldiko partez. Euskara ere eraman du lehen planora prentsaurrekoetan, entrenamenduetan eta ekitaldi publiko jendetsuetan, gureari beti lehentasuna emanez. Bere bertsoak ere famatu egin dira. Euskararekiko konpromiso hori publikoki aitortu dio Iruñeko Komunikabideak Fundazioak Bostekoa saria emanez. Elkarrizketa hau ekitaldi hartan egindako elkarrizketan oinarrituta dago.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Pozik Bostekoa sariarekin?

Niretzat berezia da, bai. Entrenatzaile bezala helburua da partiduak irabaztea, baina aurretik pertsonak gara eta nik banituen azpi-helburu batzuk Iruñera heldu nintzenez: horietako bat zen euskarari bultzada ematea. Ikustea badagoela jendea hori baloratzen duena, niretzat oso pozgarria da eta asko betetzen nau.

Kirola maite izan duzu beti. Nolakoa izan zen zure haur eta gaztaroa?

Oso oroitzapen politikak ditut. Gu baserri

batean bizi ginen. Zortzi lehengusu ginen eta gure artean ibiltzen ginen beti jolasean. Berriatuarekin beti oso identifikatuta sentitu naiz eta bere euskararekin ere bai, nahiz eta batzuetan zalantzak eduki batuaz edo gure modura aritzeko, baina iruditzen zait euskalki pila daudela eta Berriatuko euskara hori zabaltzea garrantzitsua dela.

Garai hartako oroitzapenak oso politikak dira. Oso bihurriak ginen eta beti futbolearen edo pilotan aritzen ginen, denetarik egiten genuen. Gero gaztetan ikasketekin

eta futbolearen serio hasi nintzen. Berriatuan beti egon da zesta puntarako joera eta nire lagunek jokatzeko zuten, baina nik ez, nik esku pilota nahiago. Markinako eskolan aritu nintzen. Aldi berean futbolearen ere ibiltzen nintzen. Nire aita mutrikuarra da eta 7 urte gaz apuntatu ninduen Debako hondartza futbolearen.

Futbola lehenengo nire pasioa zen eta orain ogibide bihurtu da. Pilota asko gustatzen zait eta, gainera, bultzatu beharra dago gure kirola delako. Oso gustura joaten naiz Labriterara.



Jagoba Arrasate Elustondo

BERRIATUA, 1978



Osasuna futbol taldeko entrenatzailea eta futbol jokalaria ohia. Irakasle ikasketak egin zituen eta irakasle gisa aritu zen profesionalki futbolearen hasi baino lehen. Berriatuako taldean hasi eta hamar urtez Espainiako Ligako Hirugarren eta Bigarren mailetan jokatu zuen hainbat taldetan (Eibar, Lemoa, Beasain, Elgoibar eta Portugaleten). 30 urte bete baino lehen entrenatzaile lanean hasi zen. Elgoibarren lehenbizi, Real Sociedad eta Numancian ondoren, 2018an Osasuna taldera etorri zen arte. Hurrengo urtean lortu zuen talde nafarra Lehen Mailara eramatea. 2022/2023 denboraldian Osasunak Errege Kopako finala jokatzea lortu zuen hemezortzi urteren ondoren eta UEFA Conference League txapelketan ere jokatu zuen.

Parrandazalea ere bazinela aditu dugu. Kuadrillako zintzoena zinen? Futbolearen ibiltzen nintzenetik nik eramanen nuen kotxea normalean eta formalena ni nintzen; gero agian pixka bat aldrebestu zen kontua, baina garai batean behintzat bai. Izan zen uda bat, adibidez, Su Ta Gar taldearen atzetik ibili ginela gelditu gabe. Jotzen zuten toki guztietara joaten ginen. Planak egiten genituen kontzertuen arabera: egun batean Bergaran, beste batean Gasteizen edo Nafarroan... ez dakit zenbat aldiz ikusi genituen, agian 20 bider.

Musikazalea zarela erakutsi duzu askotan. Bereziki Zea Mays taldearen *Negua joan da ta abestia* bereziki maite duzula esan duzu noizbait. Zergatik?

Zea Mays asko gustatzen zait eta Aiora Renteria pila bat, baina kantu hau entzunda, barrura sartzen zaizun zeozer badago eta ematen du gainera abesti hori ez dela modaz pasatzen. Letrari erreparatuta, negua joan dela dio eta askotan guk bizitzan, eta futbolearen ere bai, une txarrak ditugu eta negu gordin horri buelta eman behar diogu handik ateratzeko. Negua joanda berriro udaberria helduko da, argitasuna eta aukera berriak.

Eibarren hasi eta Zornotzan bukatu, hamar urte egin zenituen jokalaria gisa. Nolako garaia izan zen hura?

Oso pozgarria. Gehienbat Ligako Bigarren B eta Hirugarren mailako taldeetan ibili nintzen eta asko disfrutatu nuen bai entrenamenduekin, bai partiduekin ere. Azken urteetan jada irakasle ogibideagaz uztartuta, goizean klaseak eta arratsaldean entrenamenduetara joaten nintzan. Oroitzapen oso politak, jakinda nire neurria hor zegoela: bigarren edo hirugarren mailan eta hortik ezin nuela pasatu. Hor hasi nintzen entrenatzaile moduan pentsatzen.

Eta entrenatzaile izatera nola iritsi zinen?

30 urte bete baino lehen hasi nintzen entrenatzaile tituluak ateratzen eta azken urteetan jokatzen egon arren, baneukan entrenatzaile joera hori. Gehiago pentsatzen nuen entrenatzaile moduan jokalaria moduan baino. Azken urtean, Beasainen Manix Mandiola en-

JAGOBAREN ESKER ONEKO BERTSOA

“Nafarroan euskara izan gendun ilun, baina aurrera egin dugu jardun eta jardun, holako hizkuntzarik ez daukagu inun, beraz guztion artean bultzatu dezagun, lararailarailaralari, bultzatu dezagun”

trenatzailearen nengoela, nik egiten nizkion txostenak eta berak ere entrenatzaile moduan ikusten ninduen eta askotan iritzia eskatzen zidan.

Herrian hasi nintzen bertako gazteekin eta oso gustura. Gero Elgoibarretik deitu ninduten. Hirugarren mailan gauzak pixka bat serioagoak dira eta han bi urte egin eta gero, kasualitatez, Bittor Alkiza zegoen Realeko oinarriko futboleko zuzendari eta nire bila etorri zen Realeko jubenilekin joateko. Gero lehen taldera pasa nintzen. Ondoren Soriana joan nintzen, Bittorrekin, eta han hiru urte igarota, Iruñera etorri nintzen, duela sei urte. Futbol profesionalean ez da erraza disfrutatzea eta hemen momentu askotan disfrutatu egin dut, hori baloratzen dut.

Bittor Alkiza eta Sergi Pérez presatzaile fisikoa ekarri zenituen Osasunara zurekin...

Bai. Sorian ezagutu genuen Sergi eta hirurok etorri ginen. Gaur egun entrenatzaile bat ez da heltzen toki guztietara eta lan talde on bat edukitzeak asko laguntzen du. Ardurak delegatzeko konfiantza osoa eduki behar duzu.

25 jokalaria gazte, ospetsu, dirudunak... Bakoitzaren atzean enpresa moduko bat dago, hori dena nola gobernatzen da? Amamaren akui-lua erabiltzen duzu?

Batzuetan bai. Askok aldatu da futbola. 25 jokalaria dira, denak oso onak, denak izan dira beren auzoko onenak, gero klubeko onenak eta joan dira filtro horiek guztiak gainditzen. 25 dira, baina aldi bakoitzean hamaika



bestarik ez dira zelairatzen eta besteek galdetzen dute ea horren onak izanda zergatik ez ote duten jokatzeko. Gainera, atzetik interes asko dute: agenteak, nutrizionistak, entrenatzaile pertsonalak, aholkulari fiskalak... eta ez da erraza hori dena kudeatzea. Gu saiatzen gara naturaltasunetik egiten gauzak eta bada hori ondo ulertzen duten jokalaririk, baina beste batzuei gehiago kostatzen zaie. Hala ere, epe luzera jokalariek ikusten badute zure erabakiak egokiak direla, ondo erantzuten dute. Zentzu horretan, ikusten dut Oier Sanjurjo bezalako kapitain bat izatea luxu bat izan dela, asko lagundu duelako kudeaketa horretan.

Zure lana nolakoa da? Pedagogiatik eta psikologiatik asko dauka?

Bai, hala da. Niretzat pedagogia da bizitzeko era bat. Azken batean, ni irakaslea naiz eta gustatzen zait pedagogia hori

futboleko erabiltzea futboleko, eskolan edo etxean familiarekin. Gure lana da entrenamendua prestatzea, aurkariak aztertu... Hori ez da zaila, horretarako lan talde on bat duzuelako. Zailagoa da barrurako egin behar duzun lan hori. 25 jokalaririk dituzu goizean goiz belarriak tente, ia zer esaten duzun eta esaten duzunaren arabera, eurek segituan neurtzen dute oso goian, oso behean edo kaka eginda zauden. Hor garrantzitsuenak da transmititzea zuk nahi duzuna, eta horretarako pedagogia eta psikologia gaur egun oso garrantzitsuak dira. Azken finean, jokalarien errendimendurik onena atera nahi duzu eta horretarako ezagutu behar dituzu. Enpatia puntu hori eduki behar duzu eta batzuetan ez da erraza.

Hiru haurren aita zara eta futbol entrenatzaileak nomadak zarete. Nola daramazu hori?



"AMAMA, SARIA ZUREA ERE BADA"

"Sari berezia da niretzat. Seigarren urtea dut Osasunan eta heldu nintzenetik euskara Iruñean aldarrikatzeko helburu hori izan dut beti. Sari hau niri eman didazue, baina Oier Sanjurjo bezalako pertsonak ere merezi dute, asko egin dutelako euskararen alde. Sari hau amamari eskaini nahi diot. Momentu honetan amama dugu 100 urte eginda eta gaixorik. Azkenetan dago eta hemendik berari besarkada handi bat bidali nahi diot, bere magalean jaio eta hazi ginelako baserrian, su epelean euskaraz abesten. Orain denbora gutxi gelditzen zaio mundu honetan. Amama, hau zurea ere bada".

OIER SANJURJOREN HITZAK

[Osasunako kapitana urte luzez] "Jagoba Arrasateren eskutik eskutik taldeak izugarriko gorakada izan du. Bestalde, goraipatu behar da Jagobaren lana euskararen defentsan eta euskara plazaratzeko nahi horretan. Ahal duen guztietan euskarara jotzen du. Nafarroan eta Iruñean ez dago euskararen erreferente asko eta Osasunako entrenatzailea eta kapitaina euskaraz entzutea haur eta gazteentzat, bereziki, oso onuragarria izan da azken urteetan".

ANE MARTIARTU MINTZO DA

[Zale gorritxo da] "Osasunaren zalegoa beti leiala bezala definitu da, baina honetaz gain, oso anitza da eta Jagobak aniztasun hori bartzeko gaitasuna izan du, pertsona gardena eta naturala delako. Sinesten duena defendatu eta bultzatu du eta euskararekiko duen joera bada horren adibide argia. Urte parrasta egingen ahal du gure artean".



Ilargiaren egutegia 2024



Prezioa 8 €

Agenda 2024

Baratzea · Fruitu baratzea
Lore baratzea · Basoa

Jakoba Errekondo eta
Antton Olariaga



Prezioa 15 €

azoka.argia.eus

Beno. Urte asko dira horrela. Realean nengoenean Itziarren bizi ginen. Hori erabaki genuen, nire andrea hangoa delako eta han etxea genuelako. Soriarra alaba nagusiagaz joan ginen. Han hiru urte eman genuen eta guk baino hobeto hitz egiten du orain erdaraz. Han geundela Luka jaio zen eta Niko Iruñean.

Ez da erraza. Haiek ondoan daude beti eta ondo ez badaude, behar den oreka mantentzea zailagoa da. Zorionez, Mutiloan lehenengo egunetik oso ondo hartu gaituzte. Andrea eta hiru seme-alabak irulegi eskolan daude, nagusia aurten hasi da Mendillorriko Institutuan, jende guztiarekin beti harreman ona izan dugu eta bizimodua Mutiloan egiten dugu. Iruñera gutxi joaten gara. Sei urte dira momentuz. Ez dakit zenbat gehiago izango diren, baina etorkizunean beti izango dugu Iruñerria eta Mutiloarekiko maitasun hori, seguru.

Bertsozalea zara, bertso eskolan ibilia eta bertsoan aritzen zara zerbait ospatzeko dagoen

aldi oro. Eta inork ez du protestarik egiten euskara hutsez kantatu arren. Arraroa Nafarroa honetan...

Agian ez dutelako ulertzen [irriz].

Edo misterra zarelako eta mundu guztia zurekin dagoelako?

Niri bertsoak gustatzen zaizkit. Iruditzen zait badela modu bat adierazteko nahi duzuna era indartsu batez. Askotan diskurtsoetan galtzen gara eta zeozer laburra bada eta gainera errimaduna, hainbat hobe.

Egia esan inor ez da kexatzen: erdaldunek ez dutelako ulertu eta euskaldunek amaieran beti joaten delako mezu indartsu bat, eta agian horrekin gelditzen direlako, eta ez diotelako horrenbeste begiratzen neurriari edo errimak aberatsak diren edo ez.

Negozio itzela da gaur egungo futbolala. Zer da gehien eta gutxien gustatzen zaizuna futbol modernoan?

Gehien gustatzen zaidana da jokoa bera. Nire pasioa izan da beti joko hori aztertzea eta hobekuntza horretan buru belarri murgiltzea. Hori eta horrek dakarrena ere bai. Hemen Iruñean dagoen pertenezia sentimendu hori, adibidez,

futbolak daukan gauzarik politena da. Eta gutxien gustatzen zaidana da futbolaren inguruan sortzen diren interes horiek guztiak. Lehen kirol bat zen eta orain jada ez dakit kirol bat edo negozio bat den, baina onartu behar den zerbait da, gu ere barruan gaudelako.

Osasuna beti Osasunika izan da, talde txikia eta etxekoa. Orain badirudi zurekin hori aldatu dela eta eroso gabiltzala Lehen Mailan...

Bai, beti dago konplexu hori, baina aldi berean gure txikitaskun horretan ondo goaz eta harro gaude. Hala ere, nik ez dut ulertzen kirola anbizioz gabe eta, gure jokalariei esker, azken urteak oso onak izan dira.

Iazko emaitza itzela izan zen. Aurten Osasuna makalago dabil?

Bai, kostata ari gara. Uda gogorra eduki dugu, Europako lehiaketa hori jokatu ote genuen zalantzan. Azkenean, jokatuta eta min handia eman zigun Brujasen aurkako kanporaketa horrek.

Egia da orain makalago goazela, baina ligaren heren bat egin dugu eta lanean jarraitu behar dugu. Iazko langa oso goian dago eta ez da erraza, baina argi dago hasiera ez dela izan guk nahi genuen modukoa.

Bolada txarrak ezagutu dituzu lehendik ere.

Adibidez, hamahiru jardunaldi irabazi gabe egon zinetenean. Hala ere, klubak zure alde zuen.

Bai, une kritikoa izan zen. Lehen Mailan hamahiru partida irabazi gabe bazaude, normalean zure etxerako bidea hartu behar duzu eta, gainera, ezer esan barik. Hala ere, guk barruan ikusten genuen gai ginela aurrera ateratzeko, eta kirol zuzendaria atera eta gure aldeko mezu indartsua bota zuenean, horrek ardura eta indar handia eman zizkigun, eta ni oso eskertuta nago harekin.

Konexio berezia ikusi zenuen hor?

Bai, talde askok esaten dute desberdina direla, baina ez da aski esatea, hori demostratu egin behar da eta Osasunak momentu horretan demostratu zuen: bai desberdina dela, bai sinesten duela entrenatzaile batengan edo pertsona eta talde batengan, eta baita egiteko era batean ere. Hori da garrantzitsua. ●



Geroa ehunduz

Bihurgunez beteriko bidearen ostean heldu ginen lautada zabal hartara. Udazkenak eskaintzen dituen orlegiaren tonalitate guztien atzean, teloi lana eginez, Pirinioak zuri-zuri ikusten ziren. Horrelaxe aurkitu genuen Abaurregaina, Euskal Herriko herririk garaiena. Errepidearen alboan, borda eraberritu batean Bilobila proiektua bisitatu genuen, Angora ahuntzak hazi eta *mohair* zuntza ekoiztea helburu duen ekimena. Itxura denez, neguan zein udan erabilgarria den material horrek askotariko ezaugarriak ditu.

Ausardia izan zen etxaldearen sortzaile gaztea deskribatzeko erabili genuen hitza. Izan ere, hiriguneetan kontzentrazioa handitzen doan garaiotan, hainbatetan kosta egiten zaigu ulertzea alderantzizko bidea eginez bizimodua eta ogibidea landa eremura bideratzen dituen. Eurostaten arabera, egun, Europako biztanleen %32 bakarrik bizi omen da landa-guneetan, eta gainerakoa, hiri edota hiri ondoko herri txikietan. Euskal Herrian ere hainbat herri despopulatze prozesua bizi du, eta hustu ez diren asko hiri-eredua duten eremu bihurtu dira.

Datuei erreparatzen badiegu, oro har, Euskal Herrian 2009-2020 bitartean nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenek behera egin bazuten ere, kurioski, animalia buruek gora egin zuten, bai Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban (%86,7 txerri-aziendaren kasuan eta %4,5 behi-aziendarenean), eta baita Nafarroan ere

Abaurregainako
borda txikiaren
handitasunaren pareko
hamaika ekimen ikusiz
eta ikasiz argitu ahal
zaigu datorrena

(%21 behi-aziendan, eta %30 untxienean). Horrek, nolabait, bistaratzen du ekoizpena ustiapen handietan zentratzeko joera dagoela; hots, etxalde gutxiago baina handiagoak. Ekoizpen ereduak aldatzen ari dela esan daiteke; pixkanaka, makro-etxaldeak sortzen ari dira. Hainbatetan, teknologiaren txertaketa maila handiagoarekin lan-esku gutxiago behar izaten dute, eta horren ondorio izan ohi da ekoizpen maila altuagoa. Horrek filosofia aldaketa ere badakar berekin, nahitaez.

Zaila da Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako errealitatea Hegoaldeko lurraldetakoekin alderatzea, urte desberdinetako datuak baitaude eskuragarri. Hala ere, Laborantza Ganbarak lan mardula egiten du sektorearen zainketan, eta Ipar Euskal Herriko laborantza-



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

ren behatoki ekonomikoa ere martxan jarri du. Apustu garbia nabari da laborantza herrikoia babestearen alde. Interresgarria da jakitea 20 hektarea baino gutxiago duten etxaldeek 20-50 hektarea bitarte dituzten etxaldeek baino bi aldiz enplegu gehiago dutela hektareak, eta 50-100 hektarea artekoek baino hiru aldiz gehiago.

Etxaldeetako ekoizpen ereduak hari mutur ugari ditu: izan animalien zaintza, izan langileen lan-baldintzak, edo izan produktuaren kalitatea. Ziurrenik ere, elkarri lotutako aferak izango dira, eta batean izandako hutsune edo indarguneek besteei eragingo diete, halabeharrez. Bilobila bezalako proiektuak ausardiarekin lotu ohi dira, eta horregatik, neure buruari galdetzen diot sektorean presente dauden gai horiek guztiak barrantuta ote ditugun. Izan ere, errentagarritasunean oinarritzen diren jardunbideak naturalizatu egin ditugula uste dut, eta geure bizitzetan gako diren ekoizpen prozesuen garrantzia ahantzi. Ahaztura horren isla da landa-guneetan gertatzen direnek gure hiriguneetan duten presentzia txikia. Beldur naiz dinamika horiekin etorkizuneko ekoizpen/kontsumo ereduaren habeak eraikitzen ari ote garen.

Hala ere, Abaurregainako borda txikiaren handitasunaren pareko hamaika ekimen ikusiz eta ikasiz argitu ahal zaigu datorrena; mimos ari baitira etorkizuna ehuntzen. ●

Oin bat bestearen aitzinean?



KATIXA
DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Gure semea irakurtzen hasi zelarrik eskolan, bere adineko liburu bila aritu ginen. Horrela agertu zitzaigun etxean frantsesezko *Sami et Julie font des crêpes* ("Samik eta Juliek matahamiak egiten dituzte"), E. Massonau eta T. Bontéren lana. Izenburua leitu eta kontrazala ezagutu orduko ("istorio motz, irri-garri eta biziki irakur erraza"), semeak begirada laidoztatua botu zigun, erranez: "Eta zergatik ez 'Samik eta Juliek oin bat bestearen aitzinean ezartzen'? Ez du deus balio liburu horrek, ezagun du!". Kontzientzia hartze ustekabekoa, literatura maite dugun burasoontzat! Alde batetik, gure haurra gaitzitu genuen batere interesik ez zuen liburua proposatuz, irudiz ukatzen geniola barne gose duina eta izate konplexua; bestaldetik, nehola ere literarioa ez zen liburua aurkeztu genion, ahalkegarriki, etxeko apalategiak heldu-obra zoragarri bezalakoa gertatu.

Semea galdekatuz, ulertu genuen abenturazko narrazio epikoak amesten zituela, adiskidetasun miresgarriak kontatuko zizkietenak, etxetik eta herritik kanpoko bizipenak esperimentaraziko zizkietenak, jende izugarri batzuekin identifikatzeko posibilitatea emanen zizkietenak. Sami eta Julie bazterrera utzirik, jo genuen R. Dahl, J. London, R. L. Stevenson eta A. Dumasen obren gain, frantsesez bezala euskaraz, semeak ordu arte geure baitan zeukan konfiantza horrela doi-doiatarik salbatuz.

Ihardukitze hark frogatu zidan balio duela zorrotz izatea "haur eta gazte



PAULA ESTEVEZ

literatura" deitu sailean agertzen denarekin. Hain zuzen ere, alor horretako ekoizpen gehienak, dudarik gabe, helburu hezitzailea du: agertu denez geroztik, xede didaktiko eta moralizatzailea dauka. Azken hiru hamarkadetan aldaketa handiak gertatu dira, bistan dena, hizkuntza nagusien eremuan zein gurean, X. Etxaniz eta M. Lopez Gasenik, besteak beste, erakutsi bezala. Egun, gai psikologiko, afektibo, sozial eta politiko ugari landuak dira haur eta gazte literaturan, bururapenak ez dira gehiago baitezpada hetsiak eta zoriontsuak, eta autoreek egiazki zaintzen dute beren estiloa.

Halere, egungo haur eta gazte liburu frankok balio moral garai-kideak bideratzea dute jomuga: jazarpena, diskriminazioa, bazterketa gaitzesgarriak direla, elkar bizitza sano eta sendoa sustatu behar dela... Ez dira hainbeste ongia eta gaizkiaren arteko jokoa gaingiditzen dutenak, agerian ezartzeko jendea eta jendartea den bezala: jelsia, mendekua, fantasmak, neurritz goitiko pasioa, ideal erromantikoak, desobedientzia, ozarkeria, berekoikeria, itxaropena, etsipena, barkamena, urrikia, gerla, herioa, zuzengabekeria eta zuzentasuna bezalako gaiak fikzioaren, poesia-aren edo antzertiaren bidez barnatzen dituztenak ez dira ugari, ez euskaraz, ez beste mintzaireretan.

Horrelako literatura amoral, epaitzera ez daramana, politikoki zuzena den kanonaz kanpokoa luke

gogoko S. Van Der Linden adituak, linean dagoen mintzaldi batean dioen arabera. Zergatik haur eta gazteak behartu liburu arin, atsegin eta azalekoak bakarrik irakurtzera? Zergatik ez pentsa gu bezalakoak direla, korapilatsuak, argiak eta sentsibleak, umore eta ironia gozatzailerak, estetika literarioei irekiak?

Barthesek dio, *Qu'est-ce que la critique?* ("Zer da kritika?") testuan: "Literaturak ez du ibiltzea ahalbidetzen, baina hatsa hartzea": ez, haur eta gazte literaturak ez du azaldu behar nola ezarri oin bat bestearen aitzinean edo nola neurtu urrats prestuak, baina nola arnasa hartu aske bilakatzeko. ●



ANUNTXI ARANA
ANTROPOLOGOA

Mari Domingiren errebantxa

Ohargarria izan da Mari Domingiren figuraren hedapen bizia. Lehenago heldu zen Olentzero ikazkinarena, Lesakako modeloari jarraikiz: 1956an atera zuten Iruñean San Antonio taldeko gazteek, eta laster, 1970tik aurrera batez ere, Euskal Herri osoa konkistatua zuen. Mari Domingi 1994an plazaratu zuen Donostiako Bagera elkarte euskaltzaleak, helburu zuela haurrei euskarazko jardunaldi bat eskaintzea Gabonetako oporretan sakabanatu aitzin; Olentzerorentzako eskutitzak biltzea zen Mari Domingiren egitekoa, aurrekari eta bitartekari lana, nolabait.

Hain zuzen, egiteko hori izan da pertsonaia arbuiatzeko argudio bat, generoen parekotasuna bermatu gabe haien mailakatzea onartu egiten duelako: gizona ugazaba, emakumea zerbitzari. Eta gaur ere hala ibiltzen da Mari Domingi leku batzuetan, ez baitiote denetan opariak ekartzen uzten; nahiz eta sustatzailerik berek arin altxatu zioten gradua, postaria izatetik Olentzerorekin batera jostailuak banatzera iraganarazita.

Beste akatsa ere leporatzen zaio: Olentzerorekin bikote heterosexuala osatu eta aita-ama-haur familia kanonikoaren ikurra bilakatzea. Horren orde, Olentzero *queer*-a erreibindikatzeko dute batzuek, ez baitezpada maskulinoa, baizik eta Lei-

tzako tradizioko Orentzaroren modukoa, tankera eta izaera anitzekoa, noiz emakume eta noiz gizon.

Eredu zinez ederra. Arazoa da luze jo dezakeela Euskal Herri zabalean Olentzerori gizon irudia ezabatzeak. Hori erdietsi artean Mari Domingi baztertu al dugu? Bagerakoek ez zuten genero berdintasuna bilatzen emakume bat hautatu zutenean, baina baliteke figuraren feminitatea izatea haren arrakastaren gako bat.

Bestela ere. Gureganaino heldu den jatorrizko abesti zaharrea –jadanik Pio Barojaren amamaren gaztaroan kantatzen zena, 1820an nonbait– Mari Domingiri esaten diote besteekin Belenera joan nahi badu bere gona zaharra atera behar duela. Halere, “zatoz, zatoz” deitzen dute azkenean.

Eta hara non emakume zarpail eta arbuiatu hura Eguberriko pertsonaia ospetsua bilakatua den. Gabonetako magia ala Mari Domingiren errebantxa, nork daki. Araiz, melengeriak eta apaindurak utzirik, betatxuz bete gona jantzita ikusiko dugu, kantuan duen erromes antzari atxikia eta buru gaineko traman-kulu handigura gabe, Italiako Befana eta Jurako Tante Arie andre-gorak bezala. Horrelakoak baitira maiz ipuinetako izakia: kanpo itxura apalagatik, miragarriki ahaltsuak. ●



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Manual devocionezkoa

Ray Loriga idazleari entzun nion behin idealizatzen ditugulako auke-ratzen ditugula gure lagunak. Erabili zuen irudia bitxia zen oso: gure debozioaren likidoa ontzi batean sartzen dugu behar dugunerako. Gure edukirako edukiontzia da. Eta, alde horretatik, maitasun harreman guztietan, eta adiskidetasunean ere bai, noizbait esanen dugu: huts egin dit. Baina gu gara egiazki itxaropena sortu eta ontzietan sartu genuenak. Gu gara besteengan amets zoro sorta bat jarri genuenak: baina haiek ez dute errurik, ez dira Norvegiako Errege. Non eta besteak ez diren hain iruzur-

tiak gu konbentzitzeko hala dela, desberdinak direla. Baina kaletik doazen eta maitatzea erabakitzen dugun izaki errugabeek, lagun edo bikotekide gisa maitatzea erabakitzen dugun horiek, ez dute errurik, errugabeak dira, eta inoiz ez ziguten agindu gure debozioaren objektu perfektua izango zirenik. Lorigak garbi dauka: agian hori da gure harremanetan ditugun ia gatazka pertsonal guztien jatorria. Hobe dugu jendea den bezala onartzen saiatzea, eta ez neurri-gabeko proiektzio batean giltzapetzea. Baina nola egin hori geure burua ere den bezalako onartzen ez badugu? ●

Amnistia



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

Egun hauetan arraro samar egiten ari zait etengabe *amnistia* hitza entzutea.

Beste gai batzuekin gertatu den bezala, duela hamar bat urte gure herrian amnistiaren aldarrikapena desagertu egin zen; nolabait, jende gehienaren imaginarioan amnistiaren aukera galdutzat jo zen eta, ondorioz, ez da berriro aipatu orain arte.

Nire adinekook 1977ko amnistia ezagutu genuen. Frankismoren bukararekin ireki zen prozesu politikoak ezinbestekoa jotzen zuen antifaxistak kartzelatik ateratzea. Euskal Herrian, gehiengo sozialak kaleetan argi exijitzen zuen euskal preso politiko guztiak askatzea, eta orduko mobilizazioetan behin eta berriro lelo bera errepikatzen zen: “Presoak kalera, amnistia osoa”. Eta lortu zen 18.000 preso politiko Espainiako kartzeletatik ateratzea, haien artean euskal preso politikoak, gehienak ETAko kideak.

Baina orduko amnistiaren legea ez zuten onartu Espainiako gorte frankistetan aldaketa politikoa erakartzeko. Bere helburuak ziren, alde batetik, jendartearen mobilizazioa desaktibatzea eta, beste alde batetik, frankismoren basakeriak ezkutatzea. Xabier Arzalluzek

Urteetan espero
genuen bake
prozesua ez zen ireki,
eta hizkera politikotik
amnistiaren eskaera
desagertu egin zen

berak honela azaldu zuen: “Amnistiaren legea ez da justiziarako edo berdintasunerako ekintza, ekimen politikoa baizik; guztion ahanztura da guztia ahazteko”. Garai hartan, gehienok ez ginen kontziente izan horrelako legeak estatuko egituren inpunitatea inposatzen zuela, eta, inolako arazorik gabe, Frankismoren errepresio makinaria osoa bere horretan mantendu zen, krudeltasun osoz.

Horregatik, denbora luzea igaro gabe euskal presoak berriz Espainiako kartzelak betetzen hasi ziren, eta, berriro ere, Euskal Herriko kaleetan amnistiaren aldeko oihuak entzun ziren.

Historiaren gorabeherak lagun, aldarrikapenak 2010. urtera arte jarraitu zuen, ETaren borroka armatuaren amaiera iritsi arte. Baina urteetan espero

genuen bake prozesua ez zen ireki, eta hizkera politikotik amnistiaren eskaera desagertu egin zen. Eragile guztiek pragmatismoz jokatzera erabaki zuten, eta jarri hori mantendu da gaur arte.

Oraingoan, ordea, amnistiaren inguruko eztabaida oso ezberdina izaten ari da. Baina, 1977koarekin bezala, berriro ere sumatzen da amnistia honek beste helburu batzuk badituela, “Kataluniako Prozesuan” errepresaliatuak izan zirenen egoera konpontzeaz gain. Izan ere, zerbait gehiago lortzeko ere balioko du: Espainiako “gobernu aurrerakoa” boterean mantentzeko eta, aldi berean, estatuak Katalunian erabili duen indarkeria poliziala eta judiziala estaltzeko eta zigorrak gabe geratzeko, orain dela 46 urte gertatu zen modu berean.

ETAk borroka armatua utzi zuenetik hamahiru urte pasa dira eta pragmatismo politikoa bere horretan mantendu da, estatuak salbuespenezko legediari eutsi dion bezalaxe. Dagoeneko euskal preso gehienak Euskal Herriko espetxeetan daude, eta haien bizi baldintzak dezente hobetu dira; baina ezin dugu ahaztu urte luzeetako espetxe-zigorrak ordaintzen ari direla, kondenaren azken egun arte, eta argi geratu dela haientzat ahanzturarik ez dagoela. ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

**DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA**

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



© 943 453 588 · www.sigacus.com

ARGIA

**Argia
Egutegia
2024**

Egunero
efemeride bat



azoka.argia.eus

Prezioa 10 €



MONDRAGON

GIZATASUNA
LANEAN

Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza

MONDRAGON EUSKARAREKIN BAT

BAI

AURRERA

BETI

**MONDRAGON eta euskara,
elkarrekin haziz**

1,5 milioiko inbertsioa
Organo gorenak euskaraz
26.500 langile euskara planen bueltan
500 pertsona euskara gaitasuna hobetzen

www.mondragon-corporation.com



JAURLARITZAREN PUBLIZITATE BANAKETA

Botere mediatikoak eskuindarra eta erdalduna izaten jarrai dezan

Euskal Herriko erakunde publikoek urtero milioiak banatzen dituzte hedabideen artean, instituzioen publizitatea zabaltzearen edo hedabideen ekimenak babestearen truke. Oro har, datu publiko horien gardentasun ezak zaildu egiten du argazki osoaren jabe egitea, baina zorionez, tresna informatiko berri bati esker, Jaurlaritzaren azken bost urteotako banaketa aztertu dugu. Emaitza ohikoa da: Vocento, Noticias eta Prisa taldeko hedabideentzat pastelaren %80, nagusiki gaztelaniaz direnei %93, euskarazkoontzat %7 eta ARGIAri %0,3.

 AXIER LOPEZ

Komunikabideen gaineko boterea beti izan da gobernu gehienek obsesioa. Helburu hori lortzeko bideetako bat publizitate instituzionala da. Hedabideei diru publikoz egindako ordainketa horien opakutasuna eta arbitrariotasuna nagusi dira Mendebaldeko herrialdeetan, eta Euskal Herrian ere ez gara salbuespena.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari dago kienez, askotan salatu dugu orriotan Jaurlaritzak, hiru aldundiek eta hiriburuetako udalek nola baliatzen duten publizitate instituzionala botere mediatikoa bare mantentzeko.

Publizitaterako erabilitako milioiak hedabideetara bideratzea oso kontu delikatua da, batez ere gardentasuna ez bada bermatzen. Azken urteotan hainbatetan salatu dugunez, diru publikoarekin hedabide batzuk saritzen ditu Jaurlaritzak, nagusiki bankuen eta nazioarteko inbertsio funtsen menpeko hedabide eskuindar erdaldunak, Vocento buru. Eta jakina, banaketa desorekatu horrek beste hedabide batzuk, tartean independenteak, zigortzen ditu. ARGIA da kasu nabarmenetakoa.

2017an banaketa hori publikoki azaldu eta argitara atera genuen ARGIA-n. Lan korapilatsua eta neketsua

izan zen, Jaurlaritzak oso formatu opako eta aldrebasean zabaltzen dituelako hedabideen kontratazioak, informazioa publiko eta sentibera izanik ere. Hala salatu du hainbatetan Parlamentuko oposizioak –EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek– eta neurriak eskatu ditu. Orain, zorionez, sektore publikoan gardentasunaren aldeko ekintzaile Jaime Gómez-Obregón adituak egin duen tresna bati esker, 2018 eta 2022 urte arteko publizitate kanpainen eta haien ordainketen inguruan informazio xeheagoa dugu esku artean.

GEHIAGO AGIAN, GUTXIAGO EZ

Jaurlaritzaren publizitate banaketari buruzko azken bost urteotako memoriaren barrenek ikusgai jarri ditu Gómez-Obregón-ek gobernovasco.marketing webgunean. Horren emaitzak dira erreportaje honetako grafiketan ikusgai daudenak. ARGIA-n datu batzuk kontrastatu ditugu eta oro har ikusi dugu hedabide nagusiek jasotako dirua ere gehiago dela, baina edonola ere, Gómez-Obregón-en tresnak bermatzen du hedabideek jasotako diru kopuru horiek ziurrak direla; hau da, kasu batzuetan agian kopuruak handiagoak izan litezke, baina inola ere ez txikiagoak. Grafike-

tan dauden zifrak jaso dituzte gutxienez hedabideek. Baina batez ere tresna horrek aukera ematen digu Jaurlaritzak publizitatearen bitartez sustatzen duen ekosistema mediatikoaren argazki osoa ikusteko.


PASTELAREN ERDIA HIRU HEDABIDERENTZAT

2018 eta 2022 urte arteko epean Jaurlaritzak egindako 1.351 publizitate kanpainen ia erdia (665) *El Correo* eta bere doako gehigarrietan jarri du eta horren truke ia sei milioi eta erdi euro ordaindu dizkio. Vocentokoa ere baden *El Diario Vasco* –berak kudeatzen dituen Donostiako autobusen DVBus barne– 517 kanpaina eta ia lau milioi eta erdi euro jaso ditu. Prisako Ser irrati katearentzat 388 kanpaina eta lau milioi euro baino gehiago. Orotara, hiru hedabide handi horiek jaso dute gainerako hedabide guztien artean banatutako diru kopuru bera.

Korporazioen arabera banatuta, EITB talde publikoko hedabideak dira diru gehien jaso dutenak, 15 milioi inguru. Haren atzetik, Vocento-Cope-Cadena 100 (aliantza estrategikoa dute sinatuta) taldea dago: 11 milioi eta erdi inguru. Ondoren, Noticias taldea osatzen duten *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Noticias de Alava*,

Publizitate eta babesletza instituzionalaren banaketa

Epea: 2018-2022

Datuak: Eusko Jaurlaritzak Iturria: gobiernovasco.marketing

Onda Vasca eta Herri Irratia daude: sei milioi eurotik gora jaso dituzte. Laugarren tokian, Prisa taldea: *El País*, Cadena Ser, Los 40 eta Cadena Dial. Hauek bost milioi eta erdi euro baino gehiago poltsikoratu dituzte. Hurrengo zerrendan *Gara-Naiz* taldea litzateke, baina aurrekoek jasotako kopurutik urrun, bi milioi pasa euroekin bost urtean.

ARGIA BERRIZ ERE BAZTERTUA

2017ko publizitate banaketa bidegabeaz informatu genuenean ondokoa

esan genuen: “ARGIAren zutabe eta sustengu ekonomiko nagusia gure komunitatea osatzen duten milaka lagunak dira. Herritar horiek, ARGIAk bezalaxe, hemen ordaintzen dituzte zergak, baina Jaurlaritzaren publizitate banaketak diskriminatu egiten ditu”. Sei urte pasa dira eta hitz berberak errepikatuko ditugu, datuek erakutsi digutenez.

ARGIAko irakurleek azken bost urteotan Jaurlaritzaren 69 publizitate kanpainaren berri baino ez dute izan.

100.000 euro inguru jaso dugu trukean. *Expansión*, *Tele7*, *Radio7*, *Cinco Días*, *Telebilbao* eta *Bizkaia Irratia* he-dabideen azpitik, batzuk aipatzearen. Jaurlaritzak publizitate bitartez ARGIAra bost urtean bideratutako diru kopuru ia berdina eman dio *El Correo*-ri publizitate kanpaina bakar batean: 103.203 euro *Basque Green Deal* ize-nekoa zabaltzearen truke, “2030erako Europako klima-aldaketaren aurkako helburuak lortzearen garrantziaz sentibilizatzeko”.

EUSKALDUNAK GAZTELANIAZ INFORMATZERA BULTZATZEN DITU JAURLARITZAK

EITB talde publiko elebiduna kenduta, Eusko Jaurlaritzak 2018-2022 bost urteko epean publizitate eta babesletza bidez diruaren %93 gaztelaniaz edo nagusiki gaztelaniaz aritzen diren hedabideei eman die. Euskarazkoentzat gainerako %7 bideratu du.

Euskal hedabideen multzoan, *Berria* euskarazko egunkari nazional bakarrak jaso ditu ia bi herenak: 1.331.000 euro. Tokikomeko hedabideek 200.000 euro pasa jaso dituzte, Hamaika Telebistaren kopurutik gertu. 180.000 bat euro Bizkaia Irratiarentzat izan dira. ARGIAk, esan bezala, 105.430 euro.

Agerikoa da Jaurlaritzaren apustua gaztelaniazko hedabideen aldekoa dela. Konparaziorako, *Deia* egunkariak jaso du euskarazko hedabide guztiak batuta baino diru gehiago. Cadena Serrek euskarazko guztiak batuta halako bi, eta *El Correo* bakarrik hiru halako baino gehiago.


Gaztelaniaren aldeko apustua ez da horretan bakarrik geratzen agerian. EITB hedabide publikoaren barruan ere gaztelaniazko kateen alde egin du Jaurlaritzak. Adibidez, Euskadi Irratia eta Gaztea irratientzat 2.133.000 euro bideratu ditu eta Radio Euskadi eta Radio Vitoriarentzat, aldiz, 3.125.000 euro, milioi bat gehiago.

Beste adibide bat: euskarazko hedabideetan ia adina inbertitu du Jaurlaritzak multinazionalen menpeko sare sozialetan (Twitter, Google, Facebook...).

EUSKARAZKO HEDABIDEOK OMEN GARA "SUBENTZIONATUAK"

Batzuetan nahasmena sortzen denez, komeni da argitzea. Erreportaje honetan Jaurlaritzak hedabideetan jartzen duen publizitate instituzionalaz ari gara. Ez gara ari euskara sustatzeagatik euskarazko komunikabideek jasotzen duten diru-laguntzaz. "Baina euskarazko hedabideek ere dirua jasotzen duzue", entzun izan dugu, bata bestea konpentsatuko balu bezala. Eta ez da hala. Horren harira, euskarazko hedabideei noiz edo noiz maltzurki egozten zaie "diru publikoak puztuak" izatea; euskararen normalizazioaren bidean hedabideek euskara sustatzeko betetzen duten funtzio publikoaren ordainetan instituzioetatik urtero jasotzen duten dirua dela-eta. Publizitate instituzionalaren bidez, ordea, euskarazko diru-laguntzen bidez baino

Banaketa hedabideen hizkuntzaren arabera



Oharra: Eitb talde publikoa kanpo utzita.

askoz diru gehiago banatzen dute erdaraz ari diren hedabideen artean, irizpide gardenik gabe.

Adibide baten bitartez azalduko dugu. ARGIAk 2022an 526.646 euro jaso ditu euskararen normalizazioan egiten duen lana sustatzeko. Horri gehitzen badizkiogu Hazitekek emandako 10.510 euroko diru-laguntza, eta publizitate instituzionala argitaratzearen truke urte horretan Jaurlaritzatik jaso ditugun 24.097 euroak eta Gipuzkoako Aldunditik 9.135 euroak, emaitza 570.000 euro ingurukoa da. *El Diario Vasco*ri, aldiz, publizitate instituzional bidez, 883.795€ eman dizkio 2022an. Horri gehitu behar zaio gaztelaniaz aritzen diren hedabideei, *El Diario Vasco* barne, euskaraz artikulatu batzuk idazteagatik emandako dirua, Gipuzkoako Aldundiak publizitatearen truke urtero ematen diona (2017an 399.075 euro izan ziren) eta Donostiako Udalarena (2021ean 99.979 euro izan ziren), beste batzuen artean. Baina ez hori bakarrik, 2021ean eta 2022an COVID-19aren pandemiak eragindako kalteen izenean hedabide batzuei Jaurlaritzak ez-ohiko diru-laguntzak banatu zizkien: bost milioi 2021ean eta sei milioi 2022an. Banaketa horretan ia erabat kanpo utzi zituzten euskarazko hedabideak. 2021ekoan, diruaren %93,6 gaztelaniazkoentzat izan zen eta %6,6 euskarazkoentzat. Adibiderik gordinena: Vocento taldeari (*El Correo* eta *El Diario Vasco*) 5.015.695 euro oparitu zizkioten eta ARGIAri zentimo bat bera ere ez.

Beraz, hedabide guztiak jasotzen dute diru publikoa, baina euskarazkoek, dena

azken zentimoraino justifikatu beharraz gain, "subentzionatuak izatearen zama" faltsua jartzen saiatzen dira sektore euskararazkoak. Aldiz, gaztelaniazko hedabideek orotara diru publiko askoz gehiago jasotzeaz gain, boteretik gertuen dauden komunikabide hauen bideragarritasun ekonomikoaren sostengu nagusia dira instituzioak, eta horrek boterearekiko bezerokeria harremanak dakartza, behin baino gehiagotan erakutsi dutenez.

LEGEAREN LAUSOA LAGUN

Arabara, Bizkaian eta Gipuzkoan publizitate instituzionalaren erabilera arautzen duen legea 2010ekoa da, Patxi López lehendakari zenekoa. Honela dio: "Zalantzarik gabe, gizartearen eragina duen jardueraren denez, eta eduki oso sentikorak direnez, beharrezkoa da berau garatu behar den eremua argi eta garbi ezarriko duen lege bat [...] herritar guztiak informazioa eskura izatea bermatuko duena".

Baina lege horrek ez du zehazten horrelako lege mota batetik espero den puntu nagusietako bat: publizitate instituzionalaren pastela hedabideen artean banatzeko irizpideak. EAeko legeak ondokoa baino ez du zehazten: "Eskaintza ekonomiko onuragarriena" aukeratu dela (9. artikulua) eta "kanpainaren eraginkortasuna eta efizientzia" lehenetsiko dituztela. Hau da, oso irizpide lausoak dira.

Are gehiago, legeak ez du behartzen banaketa hori erakunde independente batek egiaztatzea eta gardentasun-ariaketa bakarra gobernuak urtero Legebiltzarrerara bidali behar duen PDFa da. Gai-

Banaketa enpresa taldeen arabera

| | |
|------------------------------------|--------------|
| Eitb | 14.923.764 € |
| Vocento + Cope + Cadena 100 | 11.444.887 € |
| Noticias | 6.317.993 € |
| Prisa | 5.500.644 € |
| Gara-Naiz | 2.202.129 € |
| Berria | 1.356.944 € |
| Grupo Planeta - Atresmedia | 1.112.629 € |
| Unidad Editorial | 603.604 € |
| Nervión taldea | 592.934 € |
| ... | |
| ARGIA | 105.430 € |

nera dokumentu horiek oso kritikatuak izan dira beren akats kopuruagatik, irizpide bateraturik ez izateagatik, datuen kalitate eskasagatik, kanpainetan inbertitutako diruaren eta eraginkortasunaren arteko balorazio ezagatik... Milioika euro publiko irizpide lausoen arabera banatzen dituzte, kontrol independenterik gabe eta datuak eskainita gardentasuna eta analisi orokorra egitea bermatzen ez dituen formatu batean.

Banaketa partzial horrek jasotako kritiken aurrean, Eusko Jaurlaritzak "hedabideen irismena" aipatu izan du irizpide nagusi eta bakar gisa behin baino gehiagotan. Eta horretarako, nahiz eta ez dagoen inon hala jasota, CIES enpresak egiten dituen zenbaketak kontuan hartzen dituzte erreferentzia gisa. Hala adierazi zuten, adibidez, "COVID-19aren ondorioak arintzeko" zenbait hedabideri emaniko "ezohiko laguntzen" banaketa desorekatua justifikatzeko.

IRISMENA BAI, BAINA SOILIK KOMENI DENEAN

Beraz, audientzia da irizpidea dirua banatzeko. Baina, hala al da beti? *Deiak* jasotakoa aztertuko dugu. Jaurlaritzan agintzen duen alderditik ideologikoki gertuen dagoen hedabidea da 2018 eta 2022 artean diru gehien jaso duen laugarren hedabidea: bi milioi eta erdi euro.

Deia egunkariari urtetik urtera diru gehiago eman dio Jaurlaritzak publizitate bidez: 2018an 373.026 euro eta 2022an 565.795 euro. Hau da, bost ur-

tean %34ko igoera. Oso hedabide gutxik gozatu du horrelako diru igoeraz.

Zabalpenari begiratuz gero, ordea, joera guztiz kontrakoa da. Jaurlaritzak hedabideen irismena sailkatzeko baliatzen duen CIES enpresaren neurketen arabera, *Deiak* 2018tik 2022ra irakurleen %38 galdu ditu paperean. 2018an 79.000 irakurle zituen eta 2022an 49.000. Konparaziorako, 2022an CIESeK ARGIAri 52.000 irakurle esleitu dizkio EAEn. Datu antzekoak izanik ere, *Deiak* iaz 565.795 euro jaso ditu Jaurlaritzaren publizitateak, eta ARGIAk 24.097. Internet-en izandako igoerak ez luke igoera hori justifikatuko, igoera hori orokorra delako hedabide guztietan.

Eta ez dezagun ahaztu: Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailburu Bingen Zupiriak 2012tik 2016ra arte zuzendu zuen egunkari hori krisi ekonomiko beteian izan da. Azken urteotan *Deia*-ko langile batzordeak askotan salatu du bizi duten "egoera jasanezina", soldata jaitsierak eta kaleratzeak tarteko.

STATUS QUOA INDARTZEKO

Interneten etorrerarekin hedabideen irismen erreala kuantifikatzea zaila izateaz gain, irismena irizpide bakartzat hartzeak zirkulu biziak sortzen du. Irakurle/entzule/ikusle gehien duten hedabideei txikiagoei baino askoz diru gehiago emanda, handiak handi izaten jarraituko du eta bazterrekoak bazterrean. Ahaztu gabe, urtez urte datuek erakusten dutena: gaztelaniaren hegemonia betikotzen laguntzen du irizpide horrek, euskararen kaltetan.

Banaketaren joera nagusia urtez urte errepikatzen dela ikusita, aurretik sumatzen genuena orain argiago esan dezakegu: publizitatearen banaketa ez bidezkoaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak hedabideen ekosistema baldintzatzen du urtez urte, haren interesen arabera.

ETA ORDUAN, ZER?

Aldaketa oro norberetik hasten da, eta gai honetan hedabideek ere erantzukizun handia dugu, ia inork ez baitu gai honi buruz hitz egiten eta inork ez baititu bere datuak argitaratzen. Batzuek agian jasotzen duten diru apurra galtzeko beldurra dutelako, eta beste batzuek, jakina, opakutasuna onuragarri zaielako eta diru partiketa alde dutelako. Instituzioei erantzukizuna kendu gabe, hedabideok agian, etsenplu izan beharko genuke, gardenago jokatu eta sektore publikotik jasotako diru-sarrerak argitaratu, are gehiago botere politikoarekiko menpekotasun lotsagabearen ondorioz, komunikabide nagusien sinesgarritasuna oso hondatuta dagoen garaiotan.

Irismena irizpide bakartzat hartzea bateraezina da erakunde publiko orok sustatu behar duen aniztasunarekin. Horrela informaziorako eskubidea merkatuaren eta kapitalaren "borondatearen" esku uzten ari dira. Telebista piztea besterik ez dago ikusteko zein "aniztasun" kultural eta politiko mota eskaintzen duen merkatuak esku-hartze publikorik gabe.

Ez al litzateke interesgarria izango diru kopuruetan gehieneko mugak ezartzea talde handientzat? Eta irismenaz gain beste neurgailu batzuk kontuan hartzea publizitatea orekatzeko? Adibidez, ondoko aldagai sozialak sartuz: hedabidearen gardentasun-maila, kooperatibismoaren sustapena, langileen baldintzak, komunikabidearen independentzia maila, kontu deontologikoen bermea... Ala normala egiten al zaigu maila berean saritzea multinazionalen jabetza duten hedabideak eta langileak jabe diren komunikabideak?

Politika feministetan diskriminazio positiborako arauak nagusitzen dira, pribilegiatuen eta diskriminatuen arteko desberdintasun historikoak arintze aldera. Politika fiskal justuetan gehiago ordaintzen du gehiago duenak, banaketa bidezkoagoa egiteko. Baina publizitate instituzionalaren gaiari dagokionez, guztiz kontrakoa gertatzen da. Hain zuzen, diru gehien dutenei ematen die diru gehien Jaurlaritzak. Ezer alda ez dadin. ●



Datuak zabaltzen dituzte aho txikiarekin, gardena izatea beste gauza bat da

Jaime Gómez-Obregón

Jaime Gómez-Obregón ingeniariak oso tresna baliagarria sortu du Jaurlaritzaren diru publikoaren erabileraz gehiago jakiteko. 2018tik 2022ra erakunde horrek hedabideen artean banatu dituen publizitate kanpaina guztien datuak prozesatu, aletu eta era ulergarrian eskuragarri jarri ditu gobiernovasco.marketing webgunean. Software librea erabili du eta kode irekian eskaini. Alegia, erakunde publikoek egin beharko luketena –eta egun egiten ez dutena– egin du.

 AXIER LOPEZ

Zer egiten du kantabriar batek Eusko Jaurlaritzako paperen artean?

Ni Kantabrian bizi naiz, baina gardentasunaren gaiak ez du mugarik. Hekimen euskal hedabideen elkarteak erakundeen gardentasunari buruzko nire aurreko proiektu bati buruz hitz egitera gonbidatu ninduen. Eta orduan, zuekin, komunikabideekin eta kazetariekin, hitz eginda sortu zen publizitate instituzionalaren banaketaren gaiari heltzeko ideia. Erronka bihurtu zen niretzat, erantzukizun sozialari lotua, erakundeen opakutasun horiek ikusarazi nahi ditudalako.

Publizitate eta komunikazio instituzionalari buruzko 6/2010 Legeak arautzen du gai hori EAEn. Nola betetzen dute lege hori?

Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrerara urtero bidaltzen du aurreko urteko memoria eta ondoren, Legebiltzarrak argitaratzen du. Egia esan, memoria batzuk ez daude beren webgunean eta beste bide batzuetatik lortu behar izan ditut, informazio publikoa izan arren.

2010eko lege hori oso modu irekian eta zehazkabea idatzita dago. Funtsean, paperak eskaneatu, 150 orrialde baino

gehiagoko PDF bat sortu eta diputatuei e-postaz bidaltzen diete. Egin dezaketen gutxienekoa da.

Legeak gardena izatea eta gobernua datuak argitaratzea besterik ez du eskatzen. Datuak zabaltzen dituzte bai, baina aho txikiarekin. Gardena izatea beste gauza bat da.

Urtean PDF bat zabaltzea gardentasuna al da?

Jaurlaritzak argitaratzen dituen PDFak ez daude datu-base batean oinarrituta, akats dezente dituzte eta eskuz eginda daudela nabari da. Egia esan, 2023an horrelako datuak PDF makur [“retorcido” darabil berak gaztelaniaz] horietan argitaratzea oso *kutrea* da. Tresna hau sortu dugu, hain zuzen ere, datu korapilatsu horien gainean argia jartzeko. Areago, iruditzen zait Eusko Jaurlaritzak berak ere ez dituela datuak gure tresnak ematen dituen moduan. Ez, behintzat, modu analitikoan egituratuta.

Gure tresna hobekuntzarako proposamen gisa ulertzea gustatuko litzaidake. Ea balio duen politikariek pilak jartzeko, baita hedabideek ere, eta datu horiek hobeto erabil ditzazuen. Lan ho-

nek ez du zerikusirik kolore politiko batekin edo bestearekin. Webgunean ez dut iritzirik ematen diruaren banaketari buruz, hori ez dagokit niri.

Milioika euro publikoren erabilerari buruzko memoriak hain akats zakarrekin argitaratzea, ez dirudi oso serioa denik.

“Datuen kalitatea” nahiko baxua da. Batzuetan gaizki eginda daude, maitasun eta interes handirik gabe. Adibidez, NDARI esleitutako publizitate-kanpaina bat aurkitzen dudanean, nik ez dut zertan jakin zer esan nahi duten sigla horiek. Ondoren, gehiago irakurri eta galdetu ondoren, konturatzen zara *Noticias de Álava* egunkariari ari direla. Edo, zentzu berean, batzuetan *Los 40* erabiltzen dute, beste batzuetan *Principales*, beste batzuetan *berrogei katea*, edo *40* besterik gabe. Hamaika Telebistaren kasuan ere, ez dakit zenbat era ezberdinetan idatzi duten: *11TB*, *11 telebista*, *amaika*, *hamai-ka telebista*... Mota horretako akats asko eta askotarikoak daude.

Baina akats zakarragoak ere badaude. Dirudienez, memoriak lehenik gaztelaniaz idazten dituzte eta gero euskarara



itzultzen dituzte. Eta ulertzen ez dudan arrazoiengatik, hitzen bilaketak egiten dituzte eta zuzenean dagokien euskarazko hitzekin ordezkatzan dituzte. Beraz, y letra agertzen denean, "eta" jartzen dute. Eta horrela, *Etaoutube* izeneko hedabide batekin egin nuen topo, Youtube beharreen. Edo *Entremayores* hedabidea *Entremaetaores* jarri dute.

Gizakiek egindako akatsak dira, baina jatorrizko datuen kalitate txarra erakusten dute, eta Eusko Jaurlaritzan datu horiek guztiak biltzeko eta tratatzeko barne-prozedurak *kutre* xamarrek direla.

Ematen du ez dituela inork irakurtzen memoria horiek.

Bai, hori da tristeena. Bestela askoz lehenago aurkituko genituen horrelako akatsak. Zenbat txosten eta memoria egin eta banatuko ote dituzte gobernuek, legeak "hala dioelako", gero inork ere begiratzen ez dituenak?

Kasualitatea, kausalitatea, inertzia...?

Arazoaren zati bat konpontzen saiatu naiz, tresna publiko, aske eta kode irekiko sortuz, informazio hori egituratzeko eta aztertzeko. Zu egiten ari zaren bezala, eta, gainera, uste dut lehenak eta baka-rrak zaretela, erabil dezakezue tresna horrelako galderak egiteko, baita erantzuteko ere. Garrantzitsuena diru publikoaren banaketa da, noski, baina azterketa hori gizartearen esku uzten dut.

Udaberrian ikusiko dugu gure lanak eraginik izan duen. Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzak beste memoria bat argitaratu beharko du, 2023ko datue-

kin. Bi aukera baino ez daude. Bata, orain arte bezala argitaratzea, egindako ekarpen guztiei muzin eginez. Nire ustez, hori harrokeria litzateke hobekuntza-proposamenei kasurik ez egitea. Eta bi, Jaurlaritzak jarrera aldatzea eta memoria formatu guztiz irekian aurkeztea.

Ba al dago eredu estandarrik edo asmatu beharreko zerbait da?

Ez, dena asmatuta dago. Edozein formatu ireki eta egituratutako balio du informazio publikoa argitaratzeko. Eta zalantzarik izanez gero, guardiako informatikariarengana jo. Ez da zaila. Ni ez nintzateke sartuko teknizismoetan, Jason formatua edo datu-base egituratu erlazional bat... Ez da kontu tekniko, borondate politikoa baizik.

Ez dirudi gardentasuna erakunde publikoen lehenasunen artean dagoenik.

Gai hau kontakatuz eta ke saltzailez beteta dago. 15 urte daramatzat hitzaldi, txosten, sinposio eta abarretan parte hartzen, datu irekiak eta gardentasuna zeinen garrantzitsuak diren azaltzeko. Zuzendari nagusiak, politikariak, enpresariak... hurbildu zaizkit, eta denek baietz, ados daudela diote. Nazkatuta nago "estrategia nazionalak", "eskubide-gutunak", *powerpoint*ak eta apelazio abstraktuak ikusteaz, baina praktikara heltzean, oso gutxi aurreratu da azken urteotan. Hitz egin bai, baina egin ez. Hizkuntza politikoaren hipokresia da, baita gorreria ere gehienok eskatzen dugunarekiko: datu publikoek irekiak, gardenak eta eskuragarriak izan behar dute. ●

1990ean sortua



Aholkularitza zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditugu:

- Zerga-ordainketak
- Merkataritza
- Kontabilitatea
- Legea
- Lan esparrua

Urbietan, 15. Hernani.
943 33 12 67
Brintzacom



mitxelena
MEKANIZATUAK

Ezlaio Industrialdea 21, HERNANI 943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.es www.talleresmitxelena.es

“ ”

Emakume epaile gutxi dago, gutxietsiak izateko beldurra dugulako

Naroa Iturain, pilota epailea

Frontoia du habitat Naroa Iturainek (Iruñea, 1992). Pilotaria da, baita pilota epailea ere. Umetan ikusmina piztu zion palak, eta pasioari jarraika, esku-pilotan hasi zen gerora. Alabaina, ia behartuta egin zen epaile, emakumeen arteko neurketak pilotariak beraiek zuzendu behar izaten zituztelako. Bada, ikasketak Aragoi egin, jardunari ekin, eta epaile lana egin zitzaion atsegin. Begi zorrotzez jarraitzen ditu jokaldiak, eta iaz Munduko Txapelketan aritu ondotik, Nafarroako Gobernuak 2022ko kirol epailerik onenaren saria eman zion urte hasieran. Aitortzez harago, emakume gehiago ikusi nahi ditu frontoietan agintea hartuta.

EÑAUT AGIRREBENGOA

Zer ezaugarri behar ditu pilota epaile on batek?

Batez ere, araudia jakin behar duzu, eta behar bezala aplikatu behar duzu frontoian. Horrez gain, pilotariak edo zaleek diotenak ez dute eraginik izan behar zure erabakietan. Norbere irizpidea garbi edukitzea oso garrantzitsua da, eta horrekin batera, jakitea zer den zuzena eta zer ez. Arreta jokaldietan jarri behar duzu uneoro: modalitate bakoitzak bere abiadura du, baina dena oso azkar gertatzen da beti. Pilotari eta pilotariei erreparatu behar diezu, baita kanpoan gertatzen ari denari ere. Zure arretak frontoian egon behar du erabat. Epaileak ez du protagonista izan behar; jendeak ez badu zutaz ezer esaten, lan ona egin duzun seinale da.

Partida jokatzeko ari dela, egoera nahasiak argitzea da gure zeregin nagusi-

ria. Ika-mika gehien pilotari batek bestearekin enbarazu egiten dionean sortzen da. Batek esaten du nahita egin diola, eta besteak dio nahigabe izan dela. Berdin gertatzen da pilotak botea kontrakantxako marrik oso gertu ematen duenean. Begi oso zorrotza eduki behar dugu, eta epaile laguntzaileengan konfiantza eduki. Arrastoak kontrolatzen aritzen dira haiek.

Kirol epailerik onenaren saria eman zizun Nafarroako Gobernuak.

Aitortza ederra izan zen. Ez nuen espero, denbora asko baitaramat Aragoi bizitzeko. Zaragozan egin nuen epaile ikastaroa, 2018an, eta ondoren, estatu mailan eta nazioarteko txapelketetan aritzeko baimenak lortu nituen. Urtarrilean bozketa epea ireki zen Nafarroako epaile onena hautatzeko, eta esteka bidali-

zidaten. Ezusteko handia izan zen nire izena hautagaien artean ikustea. “Nola liteke ni hemen egotea?”, pentsatu nuen. Beste bi hautagai zeuden: areto futbolako epaile bat, eta eskubaloiko beste bat. Pentsatzen nuen pilotako epaile bat baino ezagunagoak izango zirela, baina botoen %55 lortuta irabazi nuen. Oso pozgarria izan zen, etxean nire lana aintzat hartzen dutela erakusten baitu.

Beharrezkoak izan ziren epaile lanetan. Esku-pilotan zenbiltzala, ez zenuten inor izaten partidak zuzentzeko.

Ni beti frontoi baten barruan egon naiz. Txikitik palan hasi nintzen. Emakumeek, normalean, kontrako bidea egiten zuten: esku-pilotan hasten ziren, eta gero, palara pasa behar izaten zuten. Niri bi modalitateak gustatzen zitzaizki-



dan. Eskuz jokatzeko hasi nintzanean, Al-datze taldea sortu genuen Iruñean. Nafarroako Txapelketa jokatzeko genuen, eta federazioak epaileak bidaltzen zituen. Baina epaile nahikorik ez zegoenean, gure kasa moldatzeko esaten ziguten. Pilotariok aritu behar izaten genuen epaile lanetan. Gure partidei seriotasuna eta nolabaiteko ofizialtasuna emateko, epaile ikastaroa egitea erabaki nuen.

Ordea, Nafarroako Federazioak ez zuen ikastaro hori antolatzen. Aragoi egin behar izan zenuen.

Bizpahiru urtez eskatu nuen Nafarroan ikastaroa eskaini zezaten, baina ez zen posible izan. Ordurako harremana nuen Aragoiko Federazioarekin, eta ikastaroa han egin nuen azkenean. Asteburu bateko kontua izan zen. Aragoi egin nuenez, Nafarroan ezin nuen partidarik zuzendu. Bi urte geroago, estatu mailako titulua lortu nuen. Lurralde mailako ikastaroaren antzekoa izan zen: proba fisikoak, klaseak, azterketa teorikoa, eta praktika pixka bat. Egia esan, gus-tatu egin zitzaidan epaile lana. Jokatzeko gozatu egiten dut, baina ederra da ere marratik beste aldera egotea. Aurrera

eginez joan naiz. Eta iaz, Miarrizteko Munduko Pilota Txapelketan aritzeko aukera izan nuen.

Ika-mikarrik izan duzu epaile bezala hartutako erabakiren batengatik?

Bai. Pandemia garaian izan zen, 2020an, Coruñan jokatu zen Errege Kopan. Nafarroa Kataluniaren aurka aritu zen finalerdietan, eta momentu batean, kataluniarretako batek buelta emateko eskatu zidan, enbarazu egin ziotelakoan. Haserre zegoen, eta esaten zidan nire selekzioaren aldeko erabakiak hartzen ari nintzela. Egoera oso zakarra bizi izan zen, baina biharamunean barkamena eskatu zidan, erabaki zuzena hartu bainuen. Partida grabatuta zegoen. Momentuan bertan garbi ikusi nuen jokaldia.

Emakume epaileekin zorrotzagoa da jendea frontoian?

Frontoietako patriarkatua hor dago, eta uste nuen jendea nik huts egiteko zain egongo zela. Baina gaur egun, jende gehiena ohituta dago emakumeak frontoietan ikusten, eta epaile bezala ez dut mespretxurik sentitu. Hori bai, emakume pilotarien kopurua gora egiten ari

den arren, epaileak falta dira. Gutxi gara oraindik. Noizbehinka agertzen dira batzuk, baina ez dago gorakadarik.

Zein da horren arrazoia?

Hasieran emakume guztiok izaten dugun beldurra: ea zer esango duten, gure erabakiak ezbaian jarriko dituzten, zer gertatuko den hanka sartzen badugu... Gutxietsiak izateko beldurra dugu. Horren ondorioz, geroz eta urduriago jartzen zara, eta lotsa sentitzen duzu frontoira ateratzeko. Baina pentsatu behar dugu emakumeok ere berdin-berdin egin dezakegula epaile lana. Mutilek gure partidak zuzentzen dituzten bezala, guk kontrakoa ere egin dezakegu. Beldur hori galdu behar dugu, guztiok dugulako eskubidea akatsak egiteko. Edozeinek sar dezake hanka. Normala da. Okerrak egin arren, gozatu egin daiteke.

Apurtzailea da frontoi barruan agintea emakume baten esku egotea. Presiorik sentitu duzu?

Pandemia baino lehen nire lehen Espainiako Txapelketa zuzendu nuen, beste neska batekin batera. Emakumeen astea

zen, eta bigarren mailako finala zuzentzen jarri gintuzten. Gozoki pozoitua izan zen: lan ona eginez gero aurrierantzean emakume epaileok gauzak errazago izan genitzakeen, baina hanka sartuta batzuei argudioak emango genizkien esateko bi emakumezko epaile ezin ginela batera aritu. Pilotari guztiak mutilak ziren. Presio handia izan genuen, eta oso urduri sentitu ginin. Hori bai, jendea adeitsua izan zen gurekin.

Miarritzeko Munduko Txapelketan ere final bat zuzendu zenuen. Partida horren garrantzitsuak zuzentzea da emakumeei epaile izan daitezkeela erakusteko modurik onena?

Hala da. Final hura sekulako erronka izan zen. Goiz hartako partidarik zailena izan zen, eta gainera, Espainiak eta Frantziak jokatuzuten. Konfiantza handia izan zuten nigan. Prest ikusi ninduten zailtasun handiko partida bat zuzentzeko. Kontua da, harmailetan Frantziaren aldeko zale asko zegoela, eta ni Espainiaren izenean nindoala... Hor ere presiopean aritu nintzen. "Ea zer egiten dudan, zeren bestela jendea gainera etorriko zait", pentsatu nuen. Tentsio handiko partida izan zen, eta bihotz taupadak bizi-bizi sentitu nituen. Edonola ere, gauzak behar bezala egin nituen, eta oso esperientzia aberasgarria izan zen niretzat.

Kirol erakundeak berritu beharra dago pilotan berdintasuna indartzeko?



Nesken San Fermin torneoko 2018ko finala. Miren Larrarte eta Naroa Iturain; eta Olatz Arrizabalaga eta Maite Ruiz de Larramendi.

Erakundeak beti gizonen esku egon dira, nahiz eta geroz eta emakume gehiago dagoen. Behar da bultzada bat, emakumeen lan-taldeak sustatzeko. Garrantzitsua da emakumeak pilotan eta epaile lanetan aritzea, baina baita erakundeetan agintari bezala egotea ere. Eta hori oso arraroa da. Normalean, gizonezkoak izaten dira federazioen presidente. Aragoi emakume bat dugu, eta bera da bakarra Espainiako Estatuan. Urte asko daraman jendea dabil pilota erakundeetan, eta errelebo baten beharra ikusten dut. Pilotak haize berriak behar ditu.

Federazioetako agintariak gizonak emakumeen aurretik jartzen dituzte epaileak aukeratzeko?

Normalean, ezaguna duten eta eskarmentu handia duen gizon bat aukeratzen dute partidak garrantzitsuetarako. Agian badago neska bat ere oso ona dena epaile lana egiten, baina ez dituen hainbeste partida zuzendu, ez zaio aukera ematen. Badakigu lege zaharreko agintariak ez dutela apustu hori egingo, eta ahotsa goratu egin behar dugu guk.

Zer lan-baldintza dituzue epaileek?

Baldintza eskasak ditugu. Espainiako Federazioak hamabi euro ordaintzen dizkie epaile nagusiei, eta hamar euro laguntzaileei. Hutsaren hurrena da. Eta lurralde bakoitzeko federazioak ere antzera ordaintzen du. Alde ho-

rretatik, epaile lana ez da batere erakargarria. Pilotari onek askoz ere diru gehiago jasotzen dute. Batzuei asko gustatzen zaigu epaile aritzea, eta horregatik jarraitzen dugu. Jasotzen den diruarengatik balitz, ez legoke epailerik.

Zer partida zuzentzea nahiko zenuke etorkizunean?

2026an Argentinan jokatuko da Munduko Txapelketa, eta han izaten saiatuko naiz. 2030ekoa, berriz, Bilbon jokatuko da. Amets polita izan daiteke. Eta epe laburrean, datorren urtean Iruñean jokatuko den 22 urtez azpiko Munduko Txapelketa aipatuko nuke. Ederra litza-teke etxean halako torneo bat barrutik bizitzea. ●

KIROLETIK

BIDASOA ESKUALDEKO KIROLAREN TXOKOA

info@kiroletik.eus | (+34) 943 04 20 52 | www.kiroletik.eus



“Seme-alabek gaztelaniaz hitz egiten didate”

“DBH 2ko ikasleen %53,3k ez dute erreferentziatzko euskara maila lortu”

Jarri eskura **euskara** zure **seme-alabei**

“EAEko gazteen %96,2k gaztelania erabiltzen dute sare sozialetan”

“Gazteentzat erakargarri diren XXI. mendeko gauzak falta dira”

“Gazteen erdiak musika gaztelaniaz entzuten duela erantzun du; %26k, euskaraz, eta %25ak, bestelako hizkuntzetan”



PAPERA

35€ urtean



DIGITALA

25€ urtean

DIGITALA + PAPERA

40€ urtean



gaztezulo.eus



harpidetza@gaztezulo.eus



640 122 382



Terrorismoa ala erresistentzia?

Nola hitz egin behar da Palestinaz?

Lobby sionistaren presioak desitxuratu egin du Palestinari buruzko kontakizuna, iparralde globaleko hedabide nagusien laguntzaz.

Kazetari askok jarri du zalantzan narratiba hegemoniko hori, askotariko manipulazio taktikak azaleratu eta gomendioak zabaldu dituzte kontakizun justuago bat egitera bidean.

 JON HIDALGO

Azaroaren 28an mintegia antolatu zuten Bakea eta Duintasuna, BDZ Bizkaia eta Badil elkarteek. Palestinari buruz hedabideetan zabaltzen den errelatoa aztertu eta zalantzan jarri zuten. “Gerra vs. genozidioa, okupazioa vs. kolonialismoa, terrorismoa vs. erresistentzia” zuen izenburu. Palestinarren eskubideen aldeko Badil elkarteko kide Lubnah Shomalik zabaldu zuen bidea, eta solaskide izan zituen Teresa Aranguren, Yolanda Álvarez, Koldo Alzola, Isabel Pérez eta Patricia Simón kazetariak.

Lubnah Shomalik azaldu zuen Israelek berebiziko garrantzia ematen diola gerra mediatikoari. “Israelentzat narratiba bakarria egon daiteke. Israel dela Ekialde Hurbileko demokrazia bakarria, bera dela biktima eta bere burua defendatzen ari dela, terrorismoaren aurka borrokan. Kontakizun hori behar du Israelek bere zilegitasuna bermatzeko eta giza eskubideen urraketak justifikatzeko”. Kritikatu zuen Israelek lortu duela narratiba hori ezartzea Mendebaldeko hedabide nagusietan.

Teresa Aranguren azpimarratu zuen mugimendu sionistaren oinarrian dagoela herri palestinarraren ukazioa. “Hastapenetan aldarrikatzen zuten Pa-

lestina herririk gabeko lurra zela lurrik gabeko herri batentzat, eta ideia bera mantentzen dute egun”. Era berean, palestinarrei gizatasuna kendu eta deabru gisa irudikatzeko estrategiak erabiltzen ditu Israelek, Shomalik argudiatu zuenez. “Zapaldutako beste herri askorekin gertatu izan den bezala, zapalduak zibilizatu gabeko gisa irudikatzen dituzte, barbaroak, terroristak edo giza animaliak”.

Iparalde globaleko hedabideetan, Europan eta AEBetan batez ere, Israelen aldeko diskurtsoa da nagusi, hizlariak salatu zuten bezala. Isabel Pérez kazetariak doktorego tesia egin zuen aztertzeke zein diskurtso erabiltzen duten hedabideek Palestinako Jihad Islamikoari buruz. Lanaren ondorioetan oinarrituta, baieztatu zuen Israelek ezartzen duela kazetarietzako eremu semantiko hegemonikoa, eta zigortu egiten dela narratiba hartatik urruntzen den oro. Hala, oso zaila da kazetarietzat Hamasi buruz hitz egitea, “berehala hartzen zaituztelako Hamasen aldeko ekintzaile gisa”.

Yolanda Álvarez kazetariak ondo daki zer ondorio kaltegarri ekar ditzakeen informazioa emateak palestinarrek jasaten duten zapalkuntzari buruz. 2012 eta 2014an Gazaren aurka egindako ofentsio-

bak kontatu zituen Gazatik bertatik, eta sari ugari jaso zituen egindako lanagatik. Hala ere, salatu zuen 2014an egindako jarraipenagatik alde batera utzi zutela Espainiako telebista publikoan, eta ez dutela berriro Ekialde Hurbilera bidali, nahiz eta bera izan Gazako Zerrendan denbora gehien igaro dutenetakoa. Israelgo enbaxadak “Hamasen aktibista” izendatu zuen 2014ko sarraskian egindako lanagatik.

ANTISEMITISMOAREN MAMUA ETA GORROTO DISKURTSOAK

Israelek antisemitismo akusazioak erabiltzen ditu bere politiken aurkako kritikak isilarazteko. Patricia Simónek azaldu zuen lobby sionistak dirutza inbertitu duela norabide horretan presio egiteko Europar Batasunean. “Berez gorroto diskurtsoen aurkako arauak onartzeko egin dute, baina benetan Israelen okupazioa zalantzan jartzen duen edozein diskurtso kriminalizatzeke neurriak dira”. Espainiako Gobernuak ere men egin die presio horiei, Simonen esanetan. Sare sozialetan gorroto diskurtsoak zabaltzen dituzten kontuak kontrolatzeko algoritmoak ditu gobernuek, baina “GKE sionista batzuen eraginez algoritmo horietan sartu dira ‘antisio-

nismo', 'Israel' eta 'okupazioa' bezalako hitzak. Kontzeptu horiek zuzenean gorroto diskurtso gisa hartzen dira". Espainiako Gobernuaren protokoloetan 'erabiltzaile arrazisten ohiko traola eta hitzak' izeneko zerrendan sartuta daude 'BDZ' (boikot, desinbertsio eta zigorrak), 'Free Palestine', 'Apartheid' edota 'giza eskubideak defenda ditzagun' traolak, 'Stop Islam' eta 'IV Reich' gisakoen zaku berean.

TERRORISMOA ALA ERRESISTENTZIA

Hizlariak ez dute uste zuzena denik hedabideek Hamas talde terrorista izendatzea. Ohikoa bilakatu da izendapen hori iparralde globalean baina, Yolanda Álvarezek esan bezala, "munduko beste leku askotan ez dute hala ulertzen, eta kazetariak ez gara nor talde bat terrorista den esateko. Erresistentzia Islamiakoaren Mugimendua da, ba hala deitu beharko genioke." Azaldu zuen BBC eta Associated Press moduko hedabideek debekatua dutela *terrorista* hitza erabiltzea haien estilo liburuetan. Isabel Pérezek adierazi zuen presio handia jasaten dutela hedabideek honen harira. Frantziako Senatuak deklaratzera deitu zuen AFP agenziako zuzendaria, galdetzeko

"Palestinako okupazioa eta apartheid aipatzean, aktibistatzat hartzen gaituzte, nahiz eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren metodologia erabili lanerako"

Patricia Simón

zergatik ez duten *terrorista* hitza jartzen Hamas aipatzen dutenean. "Zuzendariak esan zuen haiek ezin zutela hori erabaki, eta hegoalde globaleko bezero asko dituztela, ez dutenak Hamas terroristatzat hartzen, erresistentzia mugimendu gisa baizik".

ZAPALKUNTZA NORMALIZATUTA

Patricia Simónek azaldu zuen Gazako azken gerratik aurrera Israelek lortu zuela ia ezinezko bilakatzea hedabideetan Palestinari buruzko albisteak sartzea.

"Normaltasun bilakatu da herri palestinarra zapalduta dagoela, eta jada ez da albiste gisa ikusten. *Lurralde okupatuak* kontzeptua desagertu egin da prentsatik, amore eman dute komunikabideek".

Behin normaltzat hartuta egungo zapalkuntza egoera, Lubnah Shomalik ohartarazi zuen kazetarien lana dela testuinguru ematea eta gatazkaren jatorri koloniala txertatzea. Salatu zuen Hamasen eraso ezerezetik sortu izan balitz bezala kontatu dutela hedabide nagusietan. Gurean ere izan dugu halako adierazpenik. Andoni Ortuzar EBBko buruak, Espainiako telebista kate publikoan, esan zuen "gatazkaren jatorria Hamasen eraso terrorista" zela, eta bigarren mailako kontua zela ea estatu palestinarra aitortu beharko litzatekeen ala ez.

NAZIOARTEKO LEGEDIA

Lubnah Shomalik nazioarteko legedia aldarrikatu zuen irakurketa objektiboa egiten saiatzeko. "Israeli aitortzen zaio defentsarako eskubidea, baina indar okupatzailea dira haiek, eskubide hori ez da haiena". Gogorarazi zuen kolonizazio eta okupazio egoerak aktibatu egiten duela palestinarren erresistentzia eskubidea, eta horretarako "bitar-





ISABEL PÉREZ

teko guztiak erabiltzeko aukera". Salatu zuten hedabideetan ez dugula *erresistentzia* entzuten, *hilketak* eta *terrorismoa* baizik. Adierazi zuten palestinarraren dela zapaltzaile kolonialari aurre egiteko eskubidea, "bai borroka armatuaren bidez, baita arma gabeko estrategiek ere. BDZ kanpainak martxan jartzea edo Nazioarteko Justizia Auzitegiatarantz jozea, adibidez, zilegi dira palestinarren aldetik, baina Israelek esaten du bere aurkako eraso zuzenak direla".

Isabel Pérezen ustez, kazetari gisa kontakizuna eraikitzeak dauden helduleku onenak nazioarteko zuzenbidea eta zuzenbide humanitarioa dela. Baina Teresa Arangurenek zera azaldu zuen: "Hain desitxuratua dago errealitatea ezen, kazetari batek nazioarteko legediaren hizkera erabiltzen duenean, ematen duen Palestinaren aldeko ekintzailea dela".

GERRA ALA GENOZIDIOA

Azken asteetan ikusi dugun eztabaidari ere heldu zioten hitzaldian. Gazan gertatzen ari denari gerra deitu ala genozidioa? Lubnah Shomalik argi esan zuen genozidioa dela. "Israelek milaka zibil hil ditu azken asteetan, eta ia bi milioi palestinarr lekualdatzera behartu, Gazatik kanporatzeko helburuarekin. Gerra krimenak dira eta ez dauka genozidioa beste izenik". Ikusita Israelen erasoek Gazako biztanleria zibila dutela helburu,

Hizlariak ez dute uste zuzena denik hedabideek Hamas talde terroristaren izendatzea

txartzat jo zuten hizlariak "Israel-Hamas gerra" deitu izana hainbat hedabideetan azken egunetako gertakariari. Koldo Alzolak kritikatu zuen ETBn ere hala zioela albistearen izenburuak azaro amaierara arte.

Nazioarteko komunitatearen isiltasuna eta konplizitate salatu zituen Shomalik. Ohartarazi zuen Israelek ez duela ardurarik hartzen egindako ekintzengatik, eta nazioarteko inpunitatea onartzen diola. "Eskuz aldatzen da ardurara, Nazio Batuen Erakundeak dirua ematen du Gaza berreraikitzeak, eta Israeli dohainik ateratzen zaio milaka pertsona hil eta Gaza suntsitu izana".

SINESGARRITASUNA, NORENA?

Yolanda Álvarezek informazioa kontrastatzeko beharra aldarrikatu zuen. Salatu zuen RTVEko bere lankide batzuek zalantzarik egin gabe onartzen dituz-

tela Israelek bidalitako informazioak. "Hamasen 200 helburu militarri eraso egin diela Israelek? Eta nola dakizu Hamasen kideak zirela, ez badute kazetaririk sartzen utzi? Hemen ikusten dugun bakarra ospitale suntsituak dira". Koldo Alzolak ere kritikatu zuen erraz gezurtatu daitezkeen informazioak zabaltzen dituztela hedabideek. "Al-Shifako ospitalean armategia zegoela esan zuten hainbat katek. Ikuspegi kritikorekin aztertuz gero, argi zegoen muntaia zirela erakutsitako irudiak".

Hamasek bidalitako informazioak, aldiz, sinesgarritasun txikiko informazio gisa zabaltzen dira orokorrean, Álvarezek hitzetan. Aipatu zuen praktika ona dela aipatzea datuak nondik datozen, baina esan zuen biktima palestinarraren datuak asko jartzen direla zalantzan, eta bere esperientzian oinarrituta oso datu fidagarriak zabaldu izan dituela "Hamasen kontrolpeko Gazako osasun zerbitzuak" aurreko oldarraldietan.

Narratibaren borroka honetan, auserdia eskatu zieten solaskideek kazetariari. Patricia Simónek laburbildu zuen mezua: "Palestinako okupazioa eta apartheid aipatzean, aktibistatzat hartzen gaituzte, nahiz eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren metodologia erabili lanerako. Hegoafrikan ez genuke ulertuko kazetariaren jarrera ez izatea apartheidaren aurkakoa". ●

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2023

FINALA

ABENDUAK 16

BILBO

BILBAO ARENA (MIRIBILLA). 17:00



Aissa Intxausti Aburruza, Aitor Etxebarriazarraga Gabiola,
Gorka Pagonabarraga Agorria, Jone Uria Albizuri, Nerea Ibarzabal Salegi,
Oihana Bartra Arenas, Onintza Enbeita Maguregi eta Xabat Galletebeitia Abaroa.
Gai-jartzaileak: Zihara Enbeita Gardoki eta Beñat Vidal Gurrutxaga.

Antolatzailea



Babesleak



Laguntzailea



ALEKO, NEKAZARITZA TEST ESPAZIO BERRIA



IÑIGO ARRUABARRENA



ALEKO
NEKAZARITZA TESTA
TEST AGRARIO

Jakin badakigu nekazaritza zein abeltzaintza sektoreak zahartuta daudela. Datuek diote ustiaketen jabe diren gizon eta emakumeak erretiratzen direnean ordezkorik ez dutela izango, are gutxiago gazteak. Egia izan liteke, baina kexatu ordez, lanean ipintzeko ordua iritsi da.

Nekazaritzan erreleboa naturalki eman da orain gutxira arte, seme-alabek haien gurasoen ustiaketak jaso eta landu dituzte, errelebo generazionala familia barnean emanez. Joera hau apurtzen joan izan da azken urteotan eta nekazaritza zein abeltzaintza munduarekin erlazio zuzena ez duten pertsona gero eta gehiago gerturatu dira bizimodu honetara. Nahiz eta joera aldaketa honek esperantza ekarri sektorera, erronka berriak azaleratzen ditu. Lehena, sektoreko inkorporazio berrien jatorriari erreparatuta, esperientzia falta izaten da, ezjakintasuna. Bigarrena, lur falta.

Arazo hauetako batzuei erantzuna emateko jaiotza nekazaritza test espazioak. Frantzia sekulako bidea egina dute jada esparru honetan, horrelako ehunka espazio aktibo dituzte. Espainiako Estatuan, Katalunian hasi ziren orain urte batzuk, eta Euskal Herrian ere hasiak gara: Bizkaian (Haztegia), Nafarroan (Zubeltz) eta Iparraldean (Trebatu) hain zuzen ere.

Baina zer da nekazaritza test espazioa? Proba prozesua, trebatze ibilbidea, nekazal enpresa sortzeko ingurune bat. Ingurune hauetan probatzaileak ideia batekin datoz, probatzeko gogoz. Espazioak ideia hori gauzatzeko baliabide guztiak eskaintzen dizkio: lurra, azpiegiturak, erremintak, formakuntza, babes legala, jarraipen bat sektoreko profesionalen eskutik, eta abar. Ikasketa eta behin-behineko instalazio epe bat da.



Lurraldearen arabera bertako behar eta baliabideei lotua dago, horregatik, nekazaritza test espazio bakoitza ezberdina da, ingurune horretako erronkei aurre egiteko. Eta gaurkoan poztasunez aurkeztera natorkizuen nekazaritza test espazio berria dugu, Aleko.

Aleko proiektua Gasteizko ingurunean funtsatuta dago, hiritik oso gertu. Hainbat nekazaritza-ekosistema probatzeko aukera izango da bertan: ortugintza biointensiboa, ortugintza estentsiboa, lehorreko labore estentsiboa, frutagintza, abeltzaintza eta baso kudeaketa animalien bitartez. Elkarlan markoan eraikitzen da proiektua, nekazal-ekosistemak haien artean sostengatuz.

Idea eta motibazioa duen edonorentzako dago zuzenduta proiektu hau, nekazaritza zein abeltzaintzatik bizi nahi duen edonorentzako. Prozesuak urte eta erdi irauten du. Lehenengo sei hilabe-

teetan ekosistema guztietan trebatuko dira partaideak, eta bukatzean, gehien motibatzen dien lan ildoak aukeratu dute. Sei hilabete horiek aukera paregabea eskainiko diete probatzaileei haien artean ezagutzeko eta proiektu kooperatiboak sortzeko, arrakasta bermatzeko asmotan. Sei hilabete horiek bukatzean urtebetez frogatu ahal izango dute haien ideia, aukeratu duten nekazal-ekosisteman. Behin epe hau bukatuta, beste urtebetez eskainiko da laguntza, behin betiko instalazioa burutzen den bitartean.

Aleko nekazaritza test espazioan ibilbide zabala eskaintzen da, lan ildo ugari eta sektoreko profesionalak laguntzeko prest daude. Zabalduta berria lagun eta ezagunen artean, eta ipini kontaktuan informazio gehiago eskuratu nahi baduzu: 945162696 cea@vitoria-gasteiz.org

Lan egiteko ordua iritsi da, aurrera! ●

A ZE FAUNA!

HILTZAILE EDERRA



EGOITZ ALKORTA MIRANDA

Horrela izendatu zuen Félix Rodríguez de la Fuente naturalista ezagunak. Izen ezinhobea ehiztari dotore honentzat, sekulako abiltzadea baitu bere harrapakinak akabatzeke.

Tamaina ertaineko haragijalea da, etxeko katu baten tamainakoa. Gorputza luzexka du eta ilajea arre-grisa, pintar beltz zoragarriekin. Katuarekin alderatuta hanka motzak ditu, burua txikiagoa eta muturra zorrotza. Belarriak handi samarrak dira eta begien aurrekaldean, mutur gainean, orban beltz adierazgarriak ditu. Isatsa luze-luzea eta lodia, 8-10 eratzun beltzekin eta punta zurizta duena.

Gautarra eta bakartia da, oso isila, katuaren tankerako gaitasunekin: usaimena, bista eta entzumena ez sinistekoak ditu. Hatzapar erdi-erretretilak baliatuz aise ibiltzen da arboletan salto ikaragarriak eginez, isatsa orekari eusteko erabiliz. Ez da batere moko fina, eta edozeri helduko dio ehizan ari dela: saguak eta bestelako karraskariak batez ere, baina txoriak ere oso gustora jaten ditu. Anfibioak, narrastiak eta intsektuak ere bere dietaren parte dira eta udazkenean ez die muzin egingo basoko hainbat fruituri. Horri erantsi behar zaio baserrietatik lapurtutakoa, oilategietako jeneroa, batez ere.

Espezie jeneralista eta oso moldakorra da, habitat oso desberdinetan bizitzeko gai dena. Baso eta sastraka gunek, erreka bazterrak, harkaitzak dauden eremuak... horiek denak dira katajineta baren bizileku, betiere gordeleku nahikoa aurkitzen badu. Basotik baserri



ingurura ere maiz gerturatzen da, handik mokadu errazak eskuratzeko esperantzan. Hotza ez zaio batere gustatzen eta mendi altuenetan ez dugu aurkituko. Bereziki maiteak ditu ibai eta errekaertzeko basoak, bertan sortzen den mikroklima epelagatik eta jatekoa franko aurkitzen duelako.

Berozalea izatea ez da kasualitatea. Europan bizi den Biberridoen familiako espezie bakarra izatea ere ez. Eta gure inguruan animalia fasilik aurkitu ez izana ere ez. Ikerketa genetikoek diote gizakiak sartu zuela Europan, Afrika iparraldetik ekarrita. Arabiarrek ekarria dela diote batzuek, Iberiar penintsula inbaditu zutenean, VIII. mendean. Etxekotu egiten omen zuten, saguak eta arratoiak harrapatzen ikaragarriak zirelako. Bada beste hipotesi bat, mende batzuk lehenago erromatarrek ekarria dela dioena, hauek ere etxekotzen baitzuten.

Bada lehenago feniziarrek ekarri zutela dioenik ere. Hainbat hipotesi egon arren, garbi dagoena da, gurera "iritsi berria" dela katajineta.

Gaur egun Afrikan, Arabiar penintsulan eta Europan zabaldua dago. Euskal Herrian eta Iberiar penintsula osoan aurki daiteke, eta Frantzia hego-mendebaldea ere konkistatu du dagoeneko. Badirudi Europan barrenako zabalkundea mugatzen duen faktore nagusia tenperatura dela. Behetik gorako bidean, noraino iritsiko da katajineta? Aldaketa klimatikoak lagundu egingo ote dio iparralderanzko konkista horretan? Denborak esango du.

Saguak eta arratoiak harrapatzeke ekarri, eta oiloak lapurtzen bukatu... ez du negozio makala egin katajinetak! Hargatik, batzuentzat hiltzailea baino ez da. Baina hiltzailea izanda ere, animalia ederra denik ezin uka! ●

KATAJINETA *Genetta genetta*

TALDEA: Ornoduna / Ugaztuna

NEURRIA: Gorputza 43-55 cm.
Isatsa 36-48 cm. 1,60 - 2,25 kg.

NON BIZI DA? Baso, sastrakadi, harkaizti eta ibar-basoetan.

ZER JATEN DU? Karraskariak, txoriak, anfibioak, narrastiak, ornogabeak, fruituak.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

BENKUT JENDEA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Arantza, ba al dakizu zertarako dituzten arantzak landareek? Landare batzuek arantzak jantzen dituzte, zergatik ote?

Aspaldi batean azaldu nizuen hemen Aiako Etxetako Inaxio zenak dotore asko kontatutako laharraren (*Rubus ulmifolius* eta *R. fruticosus*) ezkontzaren istorioa. Hona llabur: laharrak ezkondu egin nahi zuen eta ingurukoek ez zioten baimenik eman, di-da batean eman zien erantzuna eta madarikazioa, "ezin banaiz ezkondu aldamenetik igarotzen den guziari helduko diot". Eta nola arraio helduko dio laharrak edozeini? Adarrak xirmendu edo aihen antzekoak luza eta luzatu eta haiek arantzaz jantzi. Arantza behar.

Era askotako arantza dago. Batzuk, laharrarenak bezala heldu eta eusteko dira; forma berezia dute, igitagiarena, eta punta txorrotxa, baina oina lodi eta sendoa. Beste batzuk mehe, luze, zuzenak dira, heltzeko ez baina txixt edo zazta sartzeko aproposak. Batzuek hautsi eta larru azalean sartuta eraman eta pasmoa edo tetanosa sortzeko dituzte; handik atzera ederki gogoan izango duzu. Beste batzuek zaztatekoa eman eta zauria besterik ez dizute utziko, hori ere oroigarri.

Euskaldunok emanhartu joria izango genuen gure paisaiako arantzaadunekin, eta horren adierazpen zabala dugu hizkuntzan. Zenbat izen arantza esateko! Erren, elorri, otaerren, zi, ziri, xats, zizpir, zizkir larrantza, zizta, xixta, burna, ezten,



erren, benkut, espi, eskarda, zizpiot, ar, ezkalda, kizki... eta nik ez dakizkidanak...

Hau bezalako artikulua hautatuak biltzen zituen *111 hostoz eta orriz jantzi* liburuan Alex Mendizabal lagunak bere baratzeko 50 artikuluetatik ahabia (*Vaccinium myrtillus*) gai zuena hautatu zuen, "Bihotzeko oketa". Bertan, "sasitza" hitzaren sinonimo katea eransten nuen: sastraka, arantzadi sasi, elortegi, sasitza, sastra, satar, elorrieta, elorrilardi, txaga, txaraka, sastrakatza, sasiarte, lahardi, elordi, arantzarte, larrarte, elorrrarantza-

di, barda eta ardui. Liburu hori gaur idatziko banu beste hauek ere soka horretan lirarteke: arantzaga, arantzarte, sasitegi, elorriaga, txara, txaradi, sastrakadi, arantzate, arantzategi eta sastrapa.

Hainbeste hitzekin sasitzan eta arantza artean ohitutako animaliak behar ditugu euskaldunok, larruazala zailduko zitzaizgun noizbait. Gaur benkut jendea, arantzadun landare jendea mendiak berroneratzen ari denean, gure azal fin, mehe, delikatu, leun hauek berroneratuko ote dira? Eta zitzadarako prestatuko? ●



Zigilu honen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak, jakinduria eta lana daude.

**HEMEN DAGO
NAFARROA**



ReynoGourmet.com

BASAJAUN ELKARTEA

SUKALDE KOMUNITARIOAK BULTZATZEKO KONFEDERAZIOA DONOSTIALDEAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Duela lau bat urte, pandemia aurretik, Donostiako Herrera auzoko zenbait lagun sukalde komunitario bat sortzeko ideiarekin elkartu ziren. “Auzoko elkarte gastronomikoak hutsak egoten dira astean zehar, eta horiek aprobetxatzea zen hasierako ideia”, azaldu du Unax Seges Intxausti proiektuko kideak. Elkarre gastronomikotik erabilpen gutxi zuen auzoko zahar-etxeke sukaldera pasatu ziren gero, baina hasierako filosofia berarekin segitu dute bertan: asteroko menuak eskaintzea, hurbileko produktak erabiliz, modu etikoan sukaldean prestatuz eta komunitatearekin zuzeneko harremana bultzatuz. Ez dute Herrerako esperientzia kasu isolatu bat izatea nahi, ordea, eta ereduaz bultzatzeko asmoz eta antzeko proiektu gehiago pizteko, sukalde komunitarioen konfederazioa sortzen ari dira. Basajaun izena du elkarreak.

BASKIDETZA BIDEZ FUNTZIONATZEN DUTE

Menu desberdinak proposatzen dituzte Herrerako sukaldeko kideek, eta bazkideek alde aurretik egiten dituzte eskaerak. “Horrela, badakigu zehazki zenbat menu prestatu behar ditugun, eta erosketak horren arabera planteatzen dugu, soberakinik ez izateko”, azaldu du kideak. Garaiko eta bertako produktak darabiltzate, tokiko denda txikietan egiten dituzte erosketak, ahal den neurrian. Herreran 230 bazkide inguru dira sukaldean, baina eskaera finkoak egiten dituztenak 35 bat direla kalkulatu du kideak. Herreratik Grosera ere zabaldu zuten ekimena, eta han, beste hainbeste bazkide finko dituzte. “Guztira 70 bat menu egiten ditugu astero,



baina beste hainbeste egiteko ahalmena badugu, beraz, zabaltzea da ideia”, gehitu du.

Astelehenero eskaintzen dizkiete menuak bazkideei, eta horiek, plataforma baten bidez egiten dute hurrengo asteko menuen eskaera. Lau eta zortzi plater artean aukera ditzakete, eta postrearen bat ere gehitu dezakete saskian. “Hurrengo astean, behin menuak prest egonda, horien bila datoz bazkideak. Momentuz, Herrerako zahar-etxean eta Groseko Marruma elkartean ditugu puntuak”. Menuak astelehen eta asteazkenetan prestatzen dituzte, eta banaketa, berriz, astelehen arratsaldean, astearte goizean, asteazken arratsaldean eta ostegun goizean egiten dute. Bost lagun ari dira lanean sukalde komunitarioan, jardunaldi mota desberdinekin. “Asmoa da bost horiek lan finkoa izatea, baina poliki-poliki goaz”, dio.

BASAJAUN ELKARTEA, SUKALDE KOMUNITARIOEN ELKARGUNEA

Urteotako Herrerako esperientzia beste auzo eta herri batzuetara eramateko modukoa dela uste dute proiektuko kideek, eta horregatik erabaki dute duela gutxi sukalde komunitarioen konfederazioa sortzea. “Gure esperientziak, tresneria eta ezagupenak jendeari zabaldu nahi dizkiogu, baita koordinazioa ere”, dio kideak. Beste kontsumo eredu baten aldeko ekimenak bultzatu nahi dituzte, sukalde komunitario txiki gehiago sortzen lagunduz. Momentuz, menuen banaketa Oreretara zabalduko dute, bazkideetza kanpaina betean daude han; eta Egian ere, gauza bera planteatzen ari dira. “Kamera hotz bat egon daitekeen tokietan muntatu daiteke banaketa puntua. Hori, hasteko. Bigarren ideia komunitate berririk sortzea da, sukaldean egiteko toki propioarekin”, azaldu du. ●

PRAKTIKALDIA



Izaro Villarreal eta Mattin Azpiroz ARGIAko erredakzioan.

Praktikak nola doaz?

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Sinadura berriak ikusten ditugu lau hilabeteetan behin argia.eus atarian. Bi firmen atzean, bi pertsona berri taldean. Joan-etorrian dabilzan gazteak. Beren lekua topatu nahian, gustuko dutena (eta ez) deskubritzeko asmotan, beren bidean hurrengo pausoa zein aldetara eman erabakitzeotan. Izaro Villarreal Lauroba eta Mattin Azpiroz Pagola dira urtarrila bukaerara arte Lasarte-Oriako egoitzan praktikan ari direnak eta haiekin hitz egin dugu esperientzia nola doan jakiteko.

Biak kazetaritzako ikasleak (Villarreal, legazpiarra, laugarren mailan eta Azpiroz, añorgarra, gradua finitze-ko ikasketa amaierako lanean burubelarri) eta bientzat kazetaritza munduko lehen praktikak. "Asko ikasten ari garenaren sentsazioa dugu, unibertsitatean teoriak asko mintzatzen da, baina errealitateak erakusten du benetan lan hau zer den eta bigarren parte hau ezagutzen ari gara ARGIArean;

kazetaritza egiten ikasten ari gara", adierazi digute.

Azpirozek dio, ARGIA komunikabide bezala lehendik ezagutzen bazuen ere, ARGIAkoek unibertsitatean egindako bisita batean izan zuela enpresa honen barne-antolaketaren berri eta "erakargarria" iruditu zitzaizola. "Enpresa eredu desberdinen inguruko hitzaldiak izan genituen irakasgai horretan eta ARGIAkoena oso gustura aditu nuen. Gainera, bukaeran azpimarratu zuten bertan praktikak egiteko aukera eta ni añorgarra izanik, gertutasuna ere kon-tuan hartu nuen". Villarrealak ere ARGIAren horizontaltasuna azpimarratu digu: "Normalean burura datorkigun lehen antolamendu ereduak espero nuen hemen ere, zuzendari bat, koordinatzaile nagusia... nolabaiteko hierarkia bat, bertikalagoa; baina aurkitu dut beste modu batera funtzionatzen duen talde bat, gaur editore lanak egitea tokatuko zaiotz bihar nirekin pasako du goiza

alibestegintzan eta beste lankide batek izango du atzoko editore horri gaur al-bisteen galbahea pasatzeko ardura. Oso interesgarria".

Legazpiarra gizarte eta politika gaiak erakartzen duten bitartean, Añorga-koak kulturara jotzen omen du gehi-go. "Badugu gure proposamenak egiteko espazioa, erosoago sentitzen garen gaietan lan egiteko aukera; baina aldi berean, beste gai batzuk jorraztera ere bultzatzen gaituzte eta oso gustuko ez genituela uste genuen gaiez idazten ere irakasten digute", azaldu dute.

"Banku, multinazional edo alderdien menpeko ez den hedabide independente bat ezagutu eta bertan lan egiteko aukera aprobetxatzeko esango nioke datorrenari", adierazi du Villarrealak eta "ARGIA barrutik ezagutzeko aukera polita" izan litekeela esan nahi izan die, berriz, Azpirozek, eta praktikak egitera gonbidatu ditu kazetaritza edo ikus-entzunezkoen munduko ikasleak. ●

Ongi etorri komunitatera!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko.

Ongi etorri denei komunitatera!



"Aldizkari kritikoa delako".


Iruñetik Txurik

"Komunikazioaren garai hauetan garrantzitsua da bertako kazetaritza komunitario, independente eta kritikoa bultzatzea, korporazio handien interesetatik urrun, haiek isilarazten dutenari ahotsa emateko".

Debatik Landerrek

"Lan ona egiten duzuelako"

Zestoatik Itziarrek



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Van Goghen koinata eta fenomenoaren ama

Bussum (Herbehereak), 1891ko azaroaren 15a. Johanna Bongerrrek (1862-1925) zera idatzi zuen bere egunerokoa: “Urte eta erdiz lurreko emakumerik zoriontsuena izan nintzen. Amets luze eta zoragarria izan zen, amestu litekeen ederrena. Eta ondoren sufrimendu izugarri hau etorri zen”. Urte hasieran hildako Theo Van Gogh senarra gogoan idatzi zituen hitzok.

Vincent Van Goghen anaia txikiak Parisen apartamentu bat eta haren ia obra osoa utzi zizkion emazteari; Vincent Theo baino urte erdi lehenago hil zen. Ingarukoek Vincenten artelan ulergaitz baldarrak botatzeko aholkatu zioten arren, alargunak seme jaio berria eta koinatuaren obra hartu zituen, eta Herbehereetara itzuli zen.

Vincenten eskutitz eta idatziak xehe aztertu zituen; haren izaera eta, ondorioz, obra ulertzeko ezinbestekoak ziren. Publikoak Van Gogh pertsona ezagutu behar zuen, artista estimatu ahal izateko.

Gainera Johannak Van Goghen obra herritar guztiengana iristea nahi zuen, koinatuak ere hala izatea nahiko zukeelako. “Nire lanaren emaitzarik atsegina litzateke langile xumeek nire grabatuak beren gelatan edo lantokietan zintzilikatzea”, idatzi zion behin Vincentek Theori.

Hala, Bussumeko etxean arte-merkatari eta kritikarien bisitak jasotzen zituen, eta haiek hurbiltzen ez baziren, Johanna joaten zen haiengana, semea esku batean eta koinatuaren obraren bat bestean hartuta.



Jo Van Gogh-Bonger idazten, Johan Henri Gustaaf Cohen Gosschalk, 1910.

Eta pixkanaka bere estrategiak bidea egin zuen: obraren bat saltzen zuen hemen, erakusketa batean bizpahiru obra sartzea lortzen zuen han... Lan horien adierazkortasun gordinaren atzean zegoen pertsonaren berri zabalduz joan zen pixkanaka, eta Van Gogh fenomeno hazten hasi zen.

Dozena bat urte lehenago pentsaezina zena lortu zuen 1905ean: Amsterdameko arte moderno erakusleihu nagusian, Stedelijk Museoa, Vincent Van Goghi buruzko erakusketa monografikoa egitea. Johannak berak hartu zuen erakusketaren ardura osoa –edo ia osoa, gonbidapenak Vincent seme nerabeak egin baitzituen–, eta 484 pieza jarri zituen erakusgai. Orduz geroztik, ez da berriro Van Goghen hainbeste obra batera ikusi.

Erakusketaren ondorioz, Van Goghen obraren balioa –dirutan– hirukoiztu egin zen, eta haren ospea asko sendotu zen. Eta, Vincentek nahiz Johannak nahi bezala, zabalpena ez zen eliteetara mugatu.

Duela hamar bat urte, Amsterdameko Van Gogh Museoko ikerlari Hans Luijtenek Johannaren egunerokoa irakurtzeko baimena lortu zuen familiarengandik. Eta 2022an *Alles voor Vincent* (“Dena Vincentengatik”) izeneko liburua argitaratu zuen. Horri esker, Johanna Bongerrrek egindako lanaren berri zabaldu da.

Johanna 17 urterekin hasi zen egunerokoa idazten, eta hauexek izan ziren bertan jaso zituen lehen hitzak: “Izugarria litzateke nire bizitzaren amaieran hau esatea: egiaz, ez naiz ezertarako bizi izan, ez dut ezer handirik lortu”. ●

Dortoka errea bazkaltzeko

Irango Zagros mendikatearen hegoaldean dagoen Ghar-e Boof kobazuloan ez dute hominidoen hezurrik aurkitu, baina bai haiek duela 80.000 urte inguru jandako animalien hezurak; zehazki, 941 hezur. Eta hezur horiek aztertuta, garai hartako dietaren berri jakin ahal izan dute adituek. *Scientific Report* aldizkarian jakinarazi be-

rri dutenez, gehien kontsumitzen zituzten animaliak ugaztun apodunak ziren (ardiak, ahuntzak, gazelak...) eta horien atzetik, bigarren postuan, dortokak zeuden, harrigarria badirudi ere. Gainera, hartzak, zaldiak, arraina, leopardo bat eta hegazti handiak ere kontsumitu zituzten; hortaz, haien dieta uste baino anitzagoa zen. ●



SENCKENBERG CENTRE FOR HUMAN EVOLUTION

EVA FOREST LIBURUTOPIA

UTOPIAREN ORTZIMUGARI SO

Elkargunerako eta hausnarketarako espazio izateko sortu berri dute Eva Forest liburutopia Gasteizko erdigunean. Liburuak baino, jakintza dute oinarrian. Pentsamendua, memoria eta transmisioa. Pentsatzen gozatzea. Kafetegia eta liburu denda korridore labur batek eta umeen txokoak konektatzen ditu; norberak irudika dezala hortik sor daitekeena.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DOS POR DOS / ARGIA CC BY SA

Manifestazio guztiak hasten diren lekuan”, hantxe ireki berri dute Eva Forest liburutopia, Bilbo Plazari begira, Hala Bedira-eta eramatzen duen kantoian. Sinbolikoa baino gehiago da manifestazioen aipamena, gizarte mugimenduei eta borrokei garrantzia eman nahi dien espazioa izan nahi duelako liburutopiak. Irekiera ekitaldiko diskurtsoan aipatu bezala, “ankerkeria kapitalistazko oraina txikitzen” laguntzeko elkargune gisa funtzionatzea da asmoa, “bertan bizitzea mereziko duen esplotaziorik gabeko mundu bat eraikitzeko”. Pentsatzeko, hausnartzeko eta gozatzeko topagunea, beste espazio atsegin bat Euskal Herriarentzat, 170 metro koadro inguruko gunea.

“Katakraken antzerako zeozer, baina Gasteizen estilora. Eta txikiagoa, jakina”. Hitz horiek heldu zitzaizkion kazetariari duela zenbait hilabete. Ordurako denbora zeramatzen zerbait egosten eta proiektua ari zen forma hartzen. Leku guztietako obra guztien antzera, Eva Forest liburutopiakoak ere atzeratuta ibili

dira, eta bazirudienean azaroan zabalduko zela, abendua hastearekin batera ireki ditu ateak, egitarau kultural interesgarriarekin gainera. Atea zabaldu bezain pronto, dozena erdi pasa mahai dituen kafetegiarekin egiten du topo bisitariak. Ez harritu sartu eta ezkerreko mahai beti okupaturik badago, egoteko toki goxoa zer da bada hori kafe, infusio, tostada, zuku edo dena delakoaz gozatzeko, auzoko komertzio eta ekoizle txikiak erositako gainera.

Utopiak adin-mugarik ez duela ere bistakoa da. Txikienei egokituta dago espazioa, lurretik hasita –arrastaka ibiltzeko ez da bereziki leku traketsa–, baina areago, umeek badute beraien txokoa, haien beharretara egokituta, lasai ederrean jolasteko. Liburu dendaren zatia hortxe bertan hasten da gainera; haurren txokoaren bizkar, gaztetxoenentzako liburuak aurki daitezke apaletan. Zenbait apal falta dira oraindik betetzeko, baina liburu dendek izaera politikoa dutela baieztatu daiteke apalen izendegiari begiratuta: ekologismoa,



LGTBIQ+, teoria politikoa, anarkismoa, soziologia edota hezkuntza –bistadizo azkar batean dozena erdi liburu aurki daitezke generoek haurrengan duten eraginari buruz–. Marxismoak hiru apal hartu ditu, esate baterako. Eta Marxen *Kapitala*-ren tomo guztiak ere hor dira, bista-bistan. Inaugurazio ekitaldian lagun batek besteari esan zion moduan, “horrekin dena esanda dago”.

EGITEKO BESTE MODU BAT

Zazpi bazkide ditu Eva Forest liburutopia elkarteak, eta horietako bat da Xabi Lasa. Hain justu ere bisitariak liburu dendan aurkitu ahalko duen pertsona da; elkarteko beste bi pertsona ere langile izango dira, baina kafetegiaren ardurak izango dute oro har.



“Aspalditik bageneukan ideia bat, beharrak eraginda, ea nola egin daitezkeen gauzak beste modu batean”, dio Lasak. Liburu dendaz eta kafetegiaz harago mintzo da: “Etorkizun batean gure bizitzeko beste modu bat bilatu nahi dugu. Ez da bakarrik lana, baizik eta erabakiak hartzeko modua. Gure bizitzak antolatzeko modua”. Ideia horri bueltaka aritu dira *nola* eta *zertarako* galderei erantzunak bilatzen.

Zer eraikiko duen liburutopiak Arabako hiriburuaren bihotzean? Ikusmina handia da. Gogotsu daude proiektuaren sustatzaileak. “Gasteiz oso hiri unibertsitarioa izan da beti. Horrek ez du esan nahi unibertsitarioek asko irakurtzen dutenik, baina badago gazte jendea egon daitekeena interesatuta horrelako zer-

bait jasotzeko. Agian unibertsitatean jaso ezin dituzten edukiak izango dira. Beste ikuspegi bat eskaintzea da gure asmoa. Diziplina guztiei tiraka, munduaren utopia horren bila beti”.

Espazioa behar da utopiaren bidaia horretarako: “Kafetegia izateak eskaintzen du topaleku gisa funtzionatzeko espazioa, baina badauka jakintzaren beste puntu hori ere. Hau da, liburutopiak balio dezala hausnartzeko, pentsatzeko, ikuspegiak konpartitzeko eta jendea ezagutzeko ere. Estetikaren eta etikaren zera hori, ezta?”.

EVA FORESTEN OMENEZ

Liburuak eta utopia. Liburutopia. Hainbat hitz eta kontzepturi tiraka ibilita, lagun batek botatako proposamena izan

zen liburutopia terminoa sortzea. Hasieratik iruditu zitzaizen bikaina.

Eva Forest pentsalari eta idazleari esker ona adieraztea ere ez da kasualitatez sortu, erreferentziatzeko pertsona izan baita proiektuko kideentzat, politikoki oro har, eta batzuentzat pertsonalki ere bai, laguna zutelako. Lasak inaugurazio aurretik ARGIAri kontatu dion bezala, irekiera ekitaldiko manifestuan ere honela adierazi dute: “Ez da memoria ariketa bat soilik. Guretzat erreferentia izan da feminismoan, emakumearen liberazioan eta internazionalismoan, baita torturaren salaketak egiten ere. Kapitaren aurkako gerraren oraina da Eva Forest. Munduko edozein bazterretan edonoren aurka burututako edozein bigeakeria sakon-sakonean sentitzen

ABENDUAN EGOSIKO DENA

Abenduaren 1ean ireki ditu atea Eva Forest liburutopiak. Orduz berezia izango du hilabete honetan. Astelehenerik larunbatera irekiko dute: kafetegia, 9:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era; liburu denda, berriz, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Urtarrilerik aurrera asteartetik larunbatera zabalduko dute.

Nonbaitetik sortzen hasteko, ondorengo egitaraua antolatu dute abendurako:

Abenduak 1, ostirala

Ate irekiera eguna eta 19:00etan inaugurazio brindisa.

Abenduak 2, larunbata

Pájaros azules (Txori Urdinak) liburuaren aurkezpen musikatua ZIKLON Erek, Zigor Olabarria egilearekin eta Santi Cobos eta Víctor Peco preso ohiekin.

Abenduak 5, asteartea

Lazunak azkazaletan poesia liburuaren aurkezpena eta solasaldia, 19:00etan, Oihana Aranarekin eta Miren Narbaiza eta Joseba B. Lenoir musikariekin.

Abenduak 6, asteazkena

Umeen txokoaren aurkezpena. Ane Gebara ipuin kontalaria, 11:00etan.

Abenduak 8, ostirala

Hitzaldi musikatua, *Shout! Black Power mugimendua eta musika*, Igarki Roblesekin, 18:30ean.

Abenduak 14, osteguna

"Kuttunak" irakurle txokoaren aurkezpena, 19:30ean. Cira Crespo, Marina Suárez, Mikel Aierbe eta Leo Bueriberirekin.

Abenduak 15, ostirala

Berriz zentauro liburuaren aurkezpena eta irakurraldia, Katixa Agirre egilearekin.



zuen. Gure liburutopia proiektua zapal-kuntzarik izango ez duen sistema baten helburua elkarbanatzen dugun kideon ekarpen bat da”.

Hiru argitaletxea jarri zuen abian Forrestek. Sakelako liburu ereduen bidez argitaletxe handien merkatutik at jardun zuen argitaratzen, indarrean zen pentsamendutik kanpoko idazleen lanak ezagutzera emateko. Besteak beste, Alfonso Sastre, Dario Fo, Noam Chomsky eta Harold Pinterren lanak eman zituen argitara.

Beste ezaugarri batek ere lotzen ditu liburutopiako kideak Eva Foresten bizitzarekin: Euskal Herrira emigratu eta bertan bizilekua topatzeak. Izan ere, kolektiboa osatzen duten kide guztiak ez dira jaiotzez gasteiztarrak, arabarrak edo euskal herritarrak. Lasa: “Badaukaugu taldean beste lekuetatik gurera etorritako jendea. Madrilgo bat, esaterako, hango Traficantes del Sueño kolektiboan zebilena; bere esperientzia oso aberasgarria izan zaigu. Eva Forest kataluniarra zen jaiotzez, baina Euskal Herrira etorri zen bere bizimodu eta pentsamoldeekin, gure hainbat kideren gisa”.

ERDITU DA; ORAIN, MIMATZERA

Hilabete luze eta ordu askotako lanaren ondoren, erditu da Eva Forest liburutopia. Urduritasun guztiarekin baina pozez zorutzen egon dira proiektuko kideak inaugurazio ekitaldiaren aurreko minutuetan. Liburuen artean mintzatu gara Xabi Lasarekin, mugimendu handia zegoelako kafetegiko barraren alboan, eta halako batean ate ingurutik heldu den zaratak arreta eman digu. “Begira”, seinalatu digu Lasak: “Salida jarri ziguten atean, emergentzia kasuetarako; esan genien guk, emergentzia baldin bada, Irteera jarri beharko genukeela”. Eskailera batera igota egin dute konponketaxoa zazpiak izateko hamar minutu eskas falta zirenean. “Horrela egon gara lanean, ikus dezakezun bezala. Jende asko ibili da hemendik bueltara, esku pila bat eskaini dizkigute”.

Espazioak, berez, zarratuta egon behar zuen arratsaldeko zazpiak arte, eta orduan ireki, nolabait esanda, “populazio orokorrarentzat”. Baina hainbeste jende batu izan da auzolanetara, baita azken egunetan ere, pertsiana gora eta behera ibili dela ireki aurreko minutuetan. Ideia bat egiteko, ireki baino bi aste lehenago paretak pintatu gabe zeuden, eta ez zegoen ez libururik ez apalik. Mutsu-truk lanean ari diren horien lagun-



Pájaros azules liburuaren aurkezpen musikatua.

“ ”

“Guretzat erreferentea izan da feminismoan, emakumearen liberazioan eta internazionalismoan”

tzarik gabe ez zela posible izango diote elkarteko bazkideek. Esker hitzak izan dituzte guztientzat: “Jende askoren artean osatzen dugun proiektua da: dagoneko parte hartu duenarena, hemen zaudeten guztiona eta laster parte hartzea espero dugunarena ere bai”.

“Erditze bat bezalakoa da”, diosku Lasak lagun batekin izandako solasa gurea ekarrira: “Nafarroako Malatesta pizzen kooperatiban lanean dabilen lagunak esaten zidan aurrekoan, horrelako proiektuak erditze bat bezala direla. Ume bat ez da bederlatzi hilabetetan egiten; bere denbora behar du. Ari gara denbora hartzen eta hartuko dugu gehiago, behar den guztia”.

Mimatzea tokatzen da orain. Egitarau dotorea antolatu dute Gabonetako oporren aurretik, eta hitzaldi, formazio eta pentsamendu-txoko gisa funtzionatzen urratsak ematea gustatuko litzaieke urtariletik aurrera. Urte erabakiorra izango da hurrengoa. Hartuko ditu formak. Har beza lekutxo esferan. ●



LIBURUA

Sare eskas dun ekilibristak

AMAIA ÁLVAREZ URIA

Maddi Goikoetxeak hipotesi bat zeukan ikerketa abiatu aurretik: “Antzerkiak prestigio sozialik ez duen artean, prekarietatera kondentatuta dago”. Horrela euskal antzerkiaren munduko hamairu eragile elkarrizketatu zituen eta *Ura jaten* lanean bildu du emaitza.

Besteak beste, *Axut!* kolektiboko Fuchs anaiekin hasiko da bidaia Behe Nafarroan eta Nafarroa Garaitik (Nafarroako Antzerki Eskolako Monika Torre-ekin), Arabatik (*Azala* kreazioko Idoia Zabaletarekin) eta Bizkaitik (Artedramako Ander Lipusekin) pasa ondoren, Gipuzkoan amaituko da Dejabu Panpin Laborategiko Ainara Gurrutxagarekin.

Atal bakoitzean elkarrizketatzaileak fokua gai berean kokatu arren, elkarrizketatu bakoitzak bere ezagutza eta esperientziatik argi eta itzal desberdinak emango ditu. Hala ere, zenbait gauza guztiek konpartituko dituzte: bizipen, asmo eta kezka batzuk errepikatuko dira.

Sorkuntza prozesuaren garrantzia eta ikusezintasuna da horietako bat. Antzerkia ez da behar beste ezagutzen eta, be-

raz, baloratzen. Horregatik sortzaileek ibili behar dute haien lanaren prozesua eta horrek eskatzen dituen baliabideak azaltzen, justifikatzen eta eskatzen etengabe. Lan baldintzak oso prekarioak dira eta dirulaguntzen menpe bizi dira, udalekin eta kultur programatzaileekin negoziatzen.

Beste kezka konpartitu bat euskara hutsean lan egiteko zailtasuna da. Alde bate-tik, Ipar Euskal Herrian Artista Estatutua dute eta antzerkigileek egoera ekonomikoko hobeak dituzte Hego Euskal Herrian baino, baina euskara ez denez ofiziala euskaraz lan egitean oztopo gehigarriak dituzte.

Komunitatea eta transmisioa dira han eta hemen aipatu diren bi kontzeptu.



TXALAPARTIA

URA JATEN

MADDI GOIKOETXEA JUANENA

GANBILA, 2023

Batetik, hizkuntza lantzeko eta herria eraikitzeko bidea da antzerkia (eta artea edo kultura oro har), eta horrekin lotuta herri bakoitzean antzerki-talde egoiliar bat egotearen alde agertzen dira. Bestetik, hezkuntzan kalitatezko presentzia egotea defendatzen dute antzerkia eza-gutzeko eta publikoa sortzeko.


Gaur egun euskal antzerkian dabil-tzan “ekilibrista” eta “pertsona-orkes-trak” nortzuk diren eta zelan bizi diren jakiteko lan ederra da hau: antzokiaren oihala igo aurretik eta jaitsi ondoren gertatzen denaz jabetzeko eta euskal arte eszenikoak pixka bat hurbilago sentitzeko. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL · 943 37 11 50 · www.atxegajauregia.com



MUSIKA

Ez gaitezen bizi amore eman ez (edo biba Lisabö)

XALBA RAMIREZ

Euskaldunak zorionekoak baldin bagera, ez da iraganagatik. Oraina eta etorkizuna eraikitzeko aukeragatik izan beharko genuke, denbora propioak sortzen dituen herria izateko. Salbuespenetan salbuespen dugu Irungo taldea.

Denboratik at irauten du Lisabök. Burbuila baten moduan, badirudi ez dutela jaso inongo eta inoren eraginik. Soilik dira beraiek, beraien bidea eginez. Torlojuari buelta bat gehiago. Letra xehez idatzia da albumaren izenburua, aurrekoaren segida delako. Honela dugu esaldia: *Eta edertasunaren lorratzetan biluztu ginen lorategi izoztuan hezur huts bilakatu arte.*

Nire talde gogokoena zen Lisabö nerabezaroan, eta, aitortu behar dut azken lanarekin apur bat nekatu egin nintzela, norabide igualtsuegian zihoalako, akaso. Oraingo honekin, ordea, zorrak eta penak kitatu, eta eskaini dizkiguten kolore eta

armonia alaitsuagoek berriz ere harrapatu naute, indarraren eta amorraren alde.

Ezer gutxi daukat nik azaltzeko taldearen inguruan. Ulertzeko ez da gehiegirik behar, bestalde. Intentsitatea nola espikatzen duzu? Zer inporta zaigu zer irakurri duzun, katarsia heltzen ari den unean? Zer ukabilak eta zangoak eta bizkarrezurra eta lepoa eta matrailak eta erraiak estu-estu, tente jartzen baldin bazaizkizu? Lisabö basa delako, primitiboa eta oinarrizkoa.

Intelektualismotik hurbiltzen direnik bada, noski; akaso klase ertainaren postureoak baimentzen ez dituen energia dosien bila. Zeren gauza bat da 2.300 euro kobratzea, hamalau pagatan, eta, beste bat, zeharo ezberdina, bizitzak eskatzen dituen oinarrizko beharrak asetzen jakitea. Psikoanalistei batere uztailik eman gabe, *Egonezina kulturaren* eta kontu hori guztia.



LORATEGI IZOZTUAN HEZUR HUTS BILAKATU ARTE

LISABÖ

BIDEHUTS, 2023

Lisabök balio lezake dena ahazteko une batzuetan. Baina kontuz: ez delako axolagabekeriaren aldeko kantaldia. Oroitzen dut, aspaldiko elkarrizketa batean, nola Ray Ban betaurreko markako komertzial bat hurbildu zitzaizen makrojaialdi batean tratua proposatuz: argazki bat betaurrekoak jantzita, eta betaurreko -garestiak-opari. Ukatu egin zuten proposamena, kultur langileak, lehen, ez zeudelako kapitalismoaren logiken zerbitzura.

Martxel Mariskalen poema akaso sobera estetikoek, batzuetan hots eta zaratak bilatzean oinarritzen direnak, badituzte zirrikituak, eta, erakusten dute baietz, modernoek gustatzen zaien arren, printzipioak eta norabideak argi dituztela. Munduaren amaierari kantu egiteko, adibidez:

“Ez gaitezen bizi amore eman ez! Ikus arimen exodoa pospolo-kaxan / lilurarik ezin aurkitu baztertuen haitzuloan / lasterketa-zaldia hezurgabetu ondoren / axolagabe jaurti dugu ahanzturaren lokaztira / hondoratu dugun ontziko ezkutuko bidaiariak gara”. ●





Orioko bardoa

 AMETS ARANGUREN

Eguberriak hurbiltzen ari direlarik dugu urteroko zita iruindarrok Orioko bardoarekin, azken urteetan pandemia eta beste tarteko urteroko maiztasuna lausotu bada ere. Kontzertuaren aurretik eta ondotik, berdin-berdin *Ezin da ez etorri*-ka agurtzen dugu elkar kontzertura bidean edo atera berritan topatzen garen edozein lagunek. *Ez dakigu noiz izanen den azkena* gehitu zaio aurrekoari azken hiruzpalau aldietan.

80 urte pasatxo eta bi ordu eta piko oholtzan zutik, tente. Urtetik urtera itzaliago, ahulago, ez hain presente. Baina ba al dute lekurik adjektibo horiek? (80 urte pasatxo eta bi ordu eta piko). Benito Lertxundi izan da euskal kantagintza berrian aritu zirenen artetik entzunena gure etxean. Beti izan dira *guaya*-goak Laboazaleak, baina zer eginen diogu, hala tokatu zen gurean. Bere ahotsak jarri dio soinu banda gure haurtzaroari, bere ahotsak goxatu ditu (ez hainbeste

amarendako) autoko bidaia luzeetako asko, bere ahotsak kantatzen du aitak bere hiletan jartzea nahi duen abestia.

Zeberio anaia bi, Olatz Zugasti, Ángel Unzu, Pello Ramírez... Edozein egon daiteke lasai hauekin inguraturik. Jendea Benito ikustera heldu da, baina XX. mendeko Benito, inguruko ia inork ez du kantu berririk kantatzen. Sentsazioa dut hilik dagoen artista bati zaion miresmena zaiola Lertxundiri, baina bizirik egonik.

Intza Unanue eta Olatz Zugastiren ahotsek gero eta protagonismo handiagoa hartzen dute, abestia bukatu aurretik mugitzen du Lertxundik zubitua hurrengorako, gero eta pieza instrumental gehiago dago, kanturen baten hasiera kantuz eman orde deklamatu egin du... Ez dakit metaforikoki ari diren, baina gutxinaka desagertzen doa taulatik *Ez dok amairu*-ko kidea. Ez da inolako kritikarik, berriz diot, ea nor den gai adin horretan horrela ibiltzeko...

BENITO LERTXUNDI
OSPAKIZUN GAUEAN

NOIZ: Azaroaren 26an.

NON: Baluartan (Iruñea).


Kantagintzan hasi berria zela egin zioten gonbitea Tuteratik jotero festival batera joateko. 1968-1969 urtea izan zen eta lehen aldia zuen oriotarrak Tuteran. Orduan ezagutu zuen Erribera eta hortik egun batzuetara sortu kantu hominimoa. Urteak abestu gabe eman ondotik Hiri Buruzagiari eskaini dio gaur, emazteak Oriotik Iruñerako bidean horretarako xaxatu ondotik.

Esan dut *berri*-ekin ezetz, baina *Jaun Baruak*, (autotunerik gabeko) *Mirotzak* edota *Nere herriko neskatxa maite* kantuen lehen pista errekonozibleak entzutean segundu batzuez erotzen da Baluar-te. Azken honen bueltan *red flag* posible baten azalpena eman duela esanen nuke, baina ez dut deus konfirmatuko.

30 kanturen ondotik atera gara azaroko igande gaueko kale freskora. Baten bat dezepzionaturik, asko hunkituta, datorren urteko udazken edo neguko beste iluntze hotz batez *ezin da ez etorri* errepikatzeke gogot ni. ●



Hitz gezidunak

| | | | | | | | | | |
|--|--|--|------------------------------|--|--|---|--|--|-------|
| INDIAKO HIZKUNTZA ----- MODUZ | | MUGIKORRAREN AZALA ----- GASTEIZKO MUSIKA TALDEA | ADAR TXIKI ETA MEHE |  DANI BLANCO | | ALOR, EREMU ----- GALTZAGORRI | EGUNDOKO, SEKULAKO ----- BATEK DAKI | HAMABI ALE ----- ATLETIS-MOKO HAGA | |
| | | | | | | | | | |
| GUZTIZ TXIKI ----- 400 ERROMATAR ZENBAKIZ | | | | | | DENBORA LUZEAN ----- EUSKAL HERRIKO MENDIA | | | |
| | | KONTSONANTE BIKOITZA ----- NAHASTU | | EGOKIA ----- BIZKAIKO UHARTEA | PERTSONAIAREN IZENA ----- TELMO... MUSIKARIA | | | | |
| LORE LURRINTSU ----- BIRIKA | | | | | | | TRIBU ----- MATRAILA, MAZELA | | |
| | | | ZABORRA ----- URDEZAIN | | | | | SEIGARREN MUSIKA NOTA ----- BEZALA, GISA | |
| INDABA | TETELEA, KAIKUA ----- HAITZARTEKO HUTSUNEA | | | | DIRUA XAHUTU ----- UZTARRI HITZ ELKARKETAN | | | | ALDEA |
| | | | | | | SORBALDA, BIZKARRA ----- OGIA EGOSTEKO TRESNA | | | |
| NORI ATZIZKIA ----- APALA | | NAFARROAKO MENDIA ----- DIRU | | | | | SALDU ADITZAREN INFINITIBOA ----- BEHAR, ZEREGIN | | |
| | | | | ZIGORTZERO MAKILA ----- ERREPIKATUZ, GOROTZA | | | | BYTE ----- 101 ERROMATAR ZENBAKIZ | |
| ERREGUKA ----- PERTSONAIAREN AZKEN LIBURUA | | | | | PERTSONAIAREN ABIZENA ----- ROENTGEN | | | | |
| | | | | | | | | ABANTZU, KASIK | |

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | | | 2 | 1 | 7 | 9 | | 5 |
| | | 7 | 4 | | 8 | 2 | 1 | 3 |
| | | 4 | 3 | 5 | | 8 | | 6 |
| 1 | 6 | 2 | 9 | | | | | |
| | 4 | | 8 | 7 | | 6 | 9 | |
| | 8 | 9 | | | 6 | | | 4 |
| 4 | | | | 8 | | 3 | 6 | 7 |
| | | | | 4 | | | 8 | 9 |
| | 7 | 8 | | 9 | | 4 | | 1 |

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Barazki mota (pl).
2. Nabari.
3. Onespena adierazteko esapide.
4. Garaiak.
5. Egoera estua.

| | | | | |
|--|--|--|--|--|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

EBAZPENAK

1. BABAK
2. AGERI
3. BEJON
4. AROAK
5. KINKA

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| V | N | V | E | R | V | N | S | U | V | H |
| O | N | V | B | V | K | I | O | L | O | |
| B | | V | I | V | T | V | S | V | V | |
| L | S | V | L | O | Z | O | D | I | R | |
| V | I | N | O | N | U | R | R | V | B | B |
| I | G | V | E | V | V | U | L | V | V | |
| L | V | M | V | R | V | Z | I | R | I | B |
| N | K | L | V | O | T | N | Z | V | I | H |
| E | S | E | B | E | J | O | J | L | C | D |
| Z | V | Z | U | L | | | O | N | V | N |
| O | X | T | V | I | | | Z | V | S | I |
| D | I | V | | | | | P | S | | |

Karmele Salsamendi Olasagasti

KOÖL STUDIO



PREZIOA JARTZEA EZ DA COOL

“Gure markarekin sortzen duguna, patxadaz eta proba asko eginda aukuraturiko materialarekin egiten dugu. Euskal Herrian erosten dugu ahal dugun gehiena, bertako kontsumoa sustatu nahi dugulako eta jasangarritasuna kontuan hartu nahi dugulako. Beraz, atzerrian erosten badugu, hemen ez dagoelako da. Horri guztiari prezioa jartzea oso ariketa zaila da, jakin badakigulako ez direla egunero erostekoak, bai ordea denboran iraun eginen dutela. Kontsumo azkarraren zirkulutik ateratzeak baditu ondorio batzuk, eta horiek prezioan ikusten dira. Iruditzen zait Euskal Herrian kontzientzia sortzen hasiak garela eta emaitzak jasotzen hasiak gara”.

“Ez gara elkarren lehiakideak, bidelagunak baizik”

Ehungintzako diseinua ikasi zuen Salsamendik Bartzelonan (Katalunia). Moda azkarraren eta merkearen baloreekin, ordea, ez du inoiz bat egin. Etxera itzuli zen, ikasten segitzeko asmoz. Josten ikasi zuen, Madrilera (Espainiako Estatua) joan zen jasangarritasunaz praktikaldi bat egitera. Hilabetetako kontua izan behar zuenak bi urte iraun zuen azkenean. Eta berriz ere etxera. Oraingoan aldiz, gelditzeko. Ez, ordea, geldirik egoteko. Mugimenduan bizi baita Salsamendi. Mugimendu oso *Koöl*-ean. Hala hartu gaitu, kafe baten bueltan, josteko makina ondoan dugula, guri so.

 **AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ**  **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Cool bizi eredutik dator Koöl Studio.

Euskaraz, eta bizitza eredu horrekin bat egiten duen izen bat nahi genuen. Gehiegi konplikatu gabe otu zitzaigun. Erraz jarri ginen ados ama eta biok. Ikasketak amaitu nitueanean, lankidetzara proiektu bat egiteko bidaiatu genuen Ugandara. Aurrez, Bartzelonan eta Madrilan ere bizi izan naiz, ikasten edo lanean.

Oraingoan zerbait etxekoa nahi nuen, hurbilekoa, eta ahal zen neurrian lokala. Aldi berean, ingurumena errespetatuko zuena, jasangarria. Balio horiek denak identifikatzen eta definitzen proiektua abiatu aurretik bizitakoek lagundu naute. Hemen sartzen denak lasaitasuna sentitzea nahi nuen, giro *cool* batean sentitzea, kontsumitzera derrigortua sentitu gabe. Egotera, begiratzen, ikastera gonbidatzen duen giroa sortu nahi nuen. Ohartu naiz egin dudana eta bizi izan dudana prozesuaren emaitza dela Koöl Studio.

Bizirik dagoen emaitza da.

Dudarik gabe. Oso proiektu bizia da. Denda soila baino gehiago gara. Orain dela zazpi urte hasi ginen, eta denda zabaldu genuenetik, hiru urte besterik ez dira pasa. Lokal handiagoa behar genuen, eta tailerra ukatez gain, polita iruditzen zitzaidan sortutakoa nik neuk ere saldu ahal izatea. Poltsak, nezesezerrak, ile-mototsak egitekoak, eta abar ekoizten ditut. Produktu bakoitzaren gibelean bidaia bat dago, hamaika proba, hamarnaka mugimendu. Beste emakume sortzaile batzuen produktuak ere saltzen ditugu, eta horien atzean ere, esfortzu handia dago. Kontsumo eredua aldatu nahi dugu, gutxinaka bada ere, eta horrek mugimendua eskatzen du.

Estatikoak ez du iraultzen.

Hala uste dut nik. Kontsumo eredu jasangarriaren alde jarduten dugu Koöl Studion. Zabaldu orduko



"Hemen sartzen denak lasaitasuna sentitzea nahi nuen, giro cool batean sentitzea, kontsumitzera derrigortua sentitu gabe".

hainbat emakume sortzailerekin jarri nintzen harremanetan. Proiektuaren berri eman nien eta asko animatu ziren beren produktuak hemen salgai jartzera. Gaur egun, 30 inguru gara. Behar duguna erosteko ohitura har dezagun nahiko genuke eta ez modak arrastatzen gaituelako. Merkeak direlakoan hainbat gauza erosten ditugu, armaruan edo kaxoian sartu, eta hor uzteko ondoren. Kontsumo eredu arduratsu eta minimalistan, produktuaren kalitateari begiratzen zaio. Zergatik hori eta ez bestea galdetu ohi da. Beste bizitza eredu bat da, eta bai, posible da.

Badator aldaketa? Sumatzen duzu zerbait?

Zerbait aldatzen ari da. Oso espazio txikietan eta erritmo motelean, baina baietz iruditzen zait. Iraultzarik egin gabe oraindik, zoritzarrez. Euskal Herrian sortzaile asko gaude eta gisa honetako espazioak geroz eta gehiago dira. Esango nuke gainera, datorren hau emakumezkoen eskutik datorrela,

beren kontsumo eredu aldatzen ari diren asko eta asko emakumezkoak dira. Kontzientzia feministari esker ari dira agian, edo sortzeak dakarren lanaz jakitun. Hemengo bezero gehienak emakumeak dira, eta azoketan ere, erosle potentziala emakumezkoa da.

Lasarten zaude, ez ordea hiri erdian. Hona etorri egin behar da.

Bai, eta hala nahi genuen hasieratik. Hiri erdian bageunde, ikusgarritasun handiagoa izanen genuke, egia da. Jende gehiago sartuko zen agian, ez ordea erostera ziurrenik. Orain dela hiru urte zabaldu genituen ateak, eta esango nuke lasartear askok ez gaituela ezagutzen oraindik. Behin etorri eta erosi duena, itzuli ohi da, ordea. Opari berezi edo produktu zehatz baten bila datoz, eta gu asko laguntzen gaitu bezeroekin hartu-eman lasaia ukateak.

Horrelako proiektu baterako, koka-pena alde dugula esango nuke, eta dena eta tailerra uztartzeko aukera eman dit, gainera.

Ahizpatasunetik ari zara lanean.

Ez nuen bakarrik aritu nahi, eta banekien emakumeekin lan egin nahi nuela, lan eredu lasaian, batak bestea ezagututa eta errespetatuta. Arazoen aurrean bakarrik ez sentitzea oso lagungarria da. Azken batean, denok egiten dugu oso antzekoak diren oztopoekin topo. Eta agian, antzeko sortu arren, emaitza denak dira ezberdinak. Ez gara elkarren lehiakideak, bidelagunak baizik.

Horrez gainera, Izan Inurri minbizia duten pertsonen bidelaguntzarako elkartea ere, Lasarten sortu zen eta batera hasi genuen bidea. Elkarlanean aritu gara hasieratik. Espazioa eskaini diet behar dutenerako eta beraientzat ere lan egiten dut. Haiekin batera sarean aritzeak oihartzun handia eman dio gure proiektuari. Oso eskertua nago.

Eta amarekin...

Amak hasieratik lagundu nau. Bai josten, bai eta tailerraren irekitze prozesuan ere. Biak bat gara proiektu honetan. ●

Eztiaz eta abaraskaz pentsatzen Durangoko Azokaren ondoren

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Durangon pare bat egun pasa, han-hemenka publikatutakoak irakurri eta, egia esan, poztu egin naiz. Diabetikoa ez izateaz, konkretuki. Izan ere, bost egunez euskaldunak han zintzurretik behera pasatzen duen menuan hainbesteko presentzia dauka eztiak, ezen glukosarekin tentuz ibili behar duenari kalte egingo bailioke, nik uste.

Ez gaizki interpretatu, e: eztiak bere zentzurik primarioenean ari naiz –testu honek kontrakoa adierazten duen arte behintzat–. Badakizue noski, nik baino hobeto gainera, erleen produktu izarrak zer funtzio duen, nola babesten duen haien metabolismoa, nola injektatzen dien energia hegan egin ahal izateko astindu behar dituzten giharrei. Nola, bereziki klima hotzetan, elikagaiak eskas direnean, erle langile goaitatuek I+G askorekin inguratzea lortu duten eztiak izaten den indar amiñi bat biltzeko modu bakarra.

Hortik atera liteke bi soseko metaforaren bat noski, Durangoko eztiaren bultzadaz dela posible euskal erle-sortzaileentzat mehealdian bizirik irautea eta abar. Baina (api)kulturrak hori baino gehiagorako ere ematen duenez, jantzi dezagun erlezain trajea eta goazen lan pixka bat egitera.

Erle-dantza handia izan baita. Joan den ostiralean, urrutirago joan gabe, hainbeste jende ibili zen, ezen hiru bider itxi behar izan baitzituzten Landakoko ateak, legeak baimentzen duen kopurutik harago gainpetatu ez zedin. Zain geratu behar izan zuen publikoaren parte baten atxakeengatik ez balitz, norbaitek pentsatuko luke barruan Quevedoren zerbait zegoela –portzierto, izen hori irakurri eta idazle barrokoan pentsatu



baduzu, zaindu atxake horiek–.

Hobe da laineza horrekin ibiltzea Artekalen Far Westeko belar-bolak pasatzen ikustea baino, inork ez du hori zalantzan jartzen, baina kontrastea behintzat kuriozoso da, gero urte osoan konfiantzazko iturriek esaten baitizute euskarazko liburuen salmenta ez dela momentu onenetik pasatzen ari. Bi datuen gurutzaketak –Durangoko betekada, urte osoko indiferentzia– gogora ekarri dit musikan pasa dena: nola ordezkatu dituzten festibalek kontzertu-aretoak, sortu den arte egoera bat non publikoaren zati handi batek musika zuzenean entzuteko urtean behingo ebentoren bati itxaroten dion –gaiari buruz, bide batez, *Su festak* liburu interesgarri askoa publikatu du Jon Urzelaik Susa argitaletxearen eskutik: korri irakurtzera–. Euskarazko liburuak feriatzeari dagokionez ere, antzeko zerbait gertatzen da: Durangon jende asko, liburu-dendan edo liburutegian gutxi.

Kontu berri-berria ere ez da, euskal literaturaren aje historikoetako bat da izatez; Durangok ez luke agian horrenbesteko pisurik izango gauzak bestela izango balira. Baina ajea izaten jarraitzen duelako hain zuzen, deigarria da urtea joan eta urtea etorri gaiak eztabaida pixkatxo bat ez eragitea eta, are gehiago, gure zunburrnak azkenaldian ospakizunetik gertu dagoen hotsa egitea abendua iristearekin batera.

Ondorioak ere bai baititu liburuekin eta kulturarekin daukagun erlazio zehatz bakoitzak: urtean behin kontzentraturako kontsumoak irakurle mota bat sortzen du, gozo sartzen dena, baina likido samarra. Urte osoko irakurlearen eztiak lodiagoa izateaz gain, handik edaten duenak, zorte pixka batekin, noizbait idatzi ere egingo du. Eta asuntu kulturaletan interesanteena, nik uste, bigarren hori da: edozeinen gaitasun sortzaileak askatzeko abaraska izatea. ●

Jarioka

Asmatu hitz ezkutua... Kontuz hitz debekatuekin!



Zure taldeak hitz hau asmatu behar du...

| Abantaila | Garantia | Suziria | Taberna |
|---|--|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> Onura Hobaria Probetxua Lehenengoa Etekina Aurrena | <ul style="list-style-type: none"> Bermea Ziurtatu Abala Etxea Erosketa Hipoteka | <ul style="list-style-type: none"> Jaia Espazioa Kea Lehertu Piroteknia Festa | <ul style="list-style-type: none"> Jatetxea Edaria Pintxoa Topalekua Ostatua Benta |

... baina ezin dituzu hitz hauek erabili



Eta kontuz, denbora mugatua duzu!

Trebezia komunikatiboa, azkartasuna eta ezagutza bultzatzen dituen mahai-jokoa.

+4 lagun

1.200 hitz baino gehiago asmatzeko

323 karta (18 komodin)



Prezioa **25 €**

Bidalketa gastuak 5€. Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**.

Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Alfabetoko hizki bakoitzak eta hortaz soinu bakoitzak **Euskal Herriko animalia bat** irudikatzen du.



30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

Kaxa barruan aurkituko dituzu:

Karta handiak: Hizkia larriz eta xehez aurkezteko, animalia irudiari eta haren izenari lotuta.

Karta txikiak: Umeek manipulatu, erabiltzeko eta jolasen bidez hitzak osatzeko.

Laburpen-karta: Kontsultarako, animalia guztien irudiak, izenak, taldeak eta dagozkien hizkiak.

Posterra: Animalia guztien bilduma, dagozkien hizkiekin aldamenean.

Bideoak eta webgunea: Hizkien ahozotasuna lantzeko, karta bakoitzari lotutako ipuin, kanta, olerki, bertso, kontakizun, aho-korapilo, esamolde eta antzerakoen ikus-entzunezkoak webgunean eskuragarri.

Liburuxka eta jolasak: Materialaren argibideak emateaz gain, hainbat jolas proposatzen ditugu karta txikien bidez irakurketa eta idazketa lantzeko. Memoria, azkartasuna, arreta, irudimena, analisia, kooperazioa, hiztegia... garatzeko jolasak.

Egileak: Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzaguen.